

1. GAIA: Errealismo magikoa 80ko hamarkadako euskal literaturan

Errealismoa esaten zaio gauzak gertakari diren bezala fikzioan kontatzeari. Errealismoa deitzen zaio XIX.mendeko literatura frantsesa/errusiarari. *Obabakoak* obran kontatzen zaiguna ez da erreala. Errealismoaren inguruko informazioa egelan dago, euskaltzaindiako linkean.

Errealismo magikoa

Errealismo magiko hitza XX. mendeko hirugarren hamarkadan sortu zen. Ez zen literatura munduan agertu, arte ederretan baizik. 1925an Franz Roth kritikoak termino horrekin pintura-eskola bat definitu zuen: joera horren ezaugarri nagusia errealitatearen ikuspegi aldatua ematea zen.

Errealismo magikoa kontzeptua literaturan hasieran Hego Amerikako estilo literario bat definitzeko erabili zen Angel Floresen eskutik. 1947an Arturo Uslar Pietri idazleak Venezuelako ipuingintza aztertzen duen saiakera batean kontzeptua jaso zuen eta, horrela, Amerikara zabaldu. Alejo Carpentierrek, aldi berean, "real maravilloso" (1949) kontzeptua baliatu zuen, "erreal miresgarri" gisa itzul genezakeena.

Aurrekariak: Abangoardia poetiko-literarioak, Kafka (*Metamorfosis* (1915) - gizon bat intsektu bilakatzen da eta horri egin beharko dio aurre), teknologia vs. tradizioa... Kritikari askoren ustez, *Pedro Páramo* (1955) eleberriak eman zion mugimenduari hasiera.

IDAZLE NAGUSIENAK

Bi belaundaldi bereizten dira.

- **40ko hamarkadan:** M.A. Asturias, Carpentier, Borges eta Rulfori esker abiapuntua eman:
 - M.A. Asturiasek Guatemalako herritarren ipuinak eta errealitatearen ikuspegia bildu zituen, eta ikuspegi errealistaren inguruan mundu oniriko eta berezia sortu.
 - A. Carpentier-ek beste horrenbeste egin zuen Kuban. Erreala-harrigarria deituriko formularen bidez, fikzio asmatua dirudien errealitatea kontatzen du Carpentier-ek.
 - Borgesek, berriz, errealitatea ez zitezela hitzaren bidez adierazi uste zuen, ez zela gai unibertsoaren zentzua adierazteko (literatura ez da unibertsoaren zentzua), eta, horregatik, koherentziaz osaturiko mundu fantastikoa sortzen zuen bere lanetan → inoiz ez zuen bere burua mugimenduan kokatu.
 - J. Rulfo *Pedro Páramo* (1955) lanarekin mugimenduaren aitapontekotzat hartzen da.
- **60ko hamarkadan:** idazle belaundaldi berri batek "Hispanoamerikar boom" delakoari emango dio bide:
 - J. Cortázar, M. Vargas Llosa, G. García Márquez. Aurreko idazleek hasitako berrikuntzari sona emango diote. J. Cortázar-ek elementu harrigarriak sartzen zituen naturaltasunez eguneroko errealitatean. Halere, G. García Márquez da

mugimenduaren eredu nagusia, Macondoko geografia imaginarioan errealismo harrigarriaren arketipoa sortu du, egunerokoa eta magia era batera bilduz **Cien años de soledad (1967)** lanarekin.

DEFINIZIO OROKORRA

Errealismo magikoan (hego ameriketan sortu zen), idazleak, **alegiatzko eta izugarritzko** osagaiak nahasten ditu egiazkoekin, **oreka** bat sortuz: **giro liluragarria eta ohikoaren, irrealaren eta egiazkoaren arteko mugak hautsiz**. Gauza ez-ohikoei ohikotasuna ematea da errealismo magikoa eta ohikoei ez-ohikotasuna ematea (azken honen adibide **Negar egiteko jarraibideak** Julio Cortazarren *jarraibideak*).

Hots, literaturan alegiazko osagaiei emandako erabileraz bestalde, errealismo magikoak liluragarri legez aurkezten du egiazkoa eta alderantziz, ohiko legez erakutsiz, hala irakurlearentzat, nola idazlaneko pertsonaientzat, egoera eta gertaera miresgarriak, eguneroko bizitzako eginkizunei ezaugarri irreal eta alegizkoak eskaintzen dien bitartean.

MITOAK ETA IRAGAN MITIKOA berreskuratzeko nahia

Amerikar identitatea bilatzen da orain bertako mitologiaren bidez. Folklorearen bidez, eta talde-subkontzientea den beste errealitatearen nahasketa Amerikako biztanleen ohiko errealitate edo historikoarekin izango da egiazko liluragarriari bide ematen diona, errealismo magikoari, amerikar berezitasunaren isla literarioari, bai jendearengan, bai izadian, pentsakeran, iraganean, zein gizarte eta politika harremanetan.

Hispanoamerikako narratiba mitologia berri bat sortzen hasten da. Honen isla dira zenbait pertsonaia mitiko eta lan desberdinetan ageri den beraien historia, **Buendía koronela** esaterako, baita **lurreko mitikoen** agerpena, **García Marquezen Macondo** bera, eta are gehiago, **J. Rulforen Comala**, **egiazko Hades mexikar** bat, zeinetara joango baita Juan Aparicio Orfeo berri bat legez, baina ez bere maitearen bila, baizik eta bere iraganaren bila, berea eta bere aitaren irudiak adierazten duen Mexikorena ere bai.

EZAUGARRIAK

Hispanoamerikako narratiba berriak **estilo berrikuntza eta errealitatea eta alegiazkoaren sintesitik abiatuta amerikar berezitasuna argitzeko gogoa** du ezaugarri NAGUSITZAT:

- **Alegiazko gertaerak ez dira aurkezten tradiziozko ipuin miresgarrietan bezala**, pertsonaia zein irakurlea harrিতa uzten dituen legez, baizik eta **eguneroko bizitzaren** alde moduan. Era berean, egiazkoa, egunerokoa, kaletik egiten den ibilaldia, lagun bilera, edo jertsea janzte hutsa ere, zerbait liluragarri bilaka daiteke hispanoamerikako narrazioan.
- **Teknika berritzaileak:** denbora jokoak, pertsona narratiboen konbinaketa, kontrapuntua, etab...

- **Hizkuntza bera aberastu** egiten da amerikar erabilerako terminoen bidez eta europar giroa, garúa, pollera, vereda, china... bezalako amerikar **maileguez betea** ikusten da.
- Ez beti, baina sarritan narrazio horiek **gizartearen marginalitatean** kokatzen dira.
- **Errealak ez diren pertsonaiak une orotan present** egon daitezke, **nahiz eta ekintzarik ez** eraman aurrera: beti-beti, erreferentziak dira.

LATINOAMERIKAR BOOM-A

Hispanoamerikako narratibaren errealismo magikoa deiturikoaren **hastapenak eta boom-a** ezin daitezke bete-betean berdindu.

Beraz, bereizi behar litzateke bai **errealismo magikoa eta boom-a**, bai bata eta bestearen barruan ñabardura sorta zabalak eta oso desberdinak datzala ere. **Elkar nahasten** diren terminoak dira, baina **lehena estetika** bati dagokio eta **bigarrena argitalpen gertakariari eta literatura gertakariari**, non **europar berrikuntzek** eraginda hispanoamerikako narratiba berritu zuten **idazle belaunaldi** bat berraurkitu zen.

Zalantzarik gabe, **boom-ean**, **estetika bateratsu** bati, **berezko tematika** bati edo **belaunaldi batekiko** loturari baino gehiago **gertakari bati loturik** dago. Horri esker lortu zuten **kontalari hispanoamerikarrek merezia zuten tokia literatura unibertsalean** eta bere irakurleentzat **benetako errealismo magikoaren sortzaile** diren aurrekoen prosa berreskuratzea. Mugimendu horrekin lotura estua izan zuten bi idazlek —hots, **Miguel Ángel Asturiasek eta Gabriel García Márquezek**—, **Nobel Saria lortu** zuten: horrek joera literario haren garrantziaren maila erakusten du.

“Zerbait izugarri gertatu behar da herri honetan”(1985). Gabriel Garcia Marquez. Kolonbiar idazle eta kazetaria. *Cien años de soledad*engatik ezagutua, errealismo magikoa estiloaren sortzaile ospetsuenetakoa. Latino American idazle famatua.

Ez dago elementurik gertagarria ez denik, bertako dena gerta liteke. Ez dira gauza fantastikoak, ez dago gezurrik, aieru bat dago. Istorio honetan batek egiten duena imitatzen dute besteek, emakume batek hasten du istorioa bere susmoekin. Errealista da, baina errealismo magikotik badu zerbait.

Izenburuko esaldia mantra bat bihurtzen da, behin eta berriz errepikatuko da ipuinean zehar, mantra hori mezurik gabeko heriotzarekin lotu dezakegu. Istorio horretan ere behin eta berriz ematen baitira seinaleak eta agureak ematen ditu seinale horietako asko.

Ama horrek esaten duena ohitura zaharrekin lotuta egon daiteke eta hasiera batean herriko berriek ez diote sinisten (mezurik... istorioan atsoak ere ohitura zaharrak adierazten ditu).

«Ez zaitetz zaharren pentsamenduez burlatu, sarritan egia bihurtzen bait dira». Egi bihurtu da pentsamendu hori ipuinaren bukaeran. Mitoaren kontuarekin lotu beharko genuke. Sinesmen eta pentsamenduei buruz ari zaigu.

— “Gezur bat askotan errepikatzen baduzu, egi bihurtzen da”:

“Elkarren segidan dira parkeak” (1995). Julio Cortazar. Argentinarraren idazlea, Bruselan jaioa.

Irakurlea nobela irakurtzen ari da, azken kapituluak. Nobelako pertsonai batek irakurlea hil du. Ez da errealista, ezin da gertatu nobela batetik bat ateratzea eta irakurle bat hiltzea. Ez da errealismo magikoa, metaliteratura erabiltzen da ipuin horretan fikzio plano desberdinak erabiltzen direlako;

- Istorio/diegesi nagusia
- plano edo istorio intradiegetikoak → ezin du supradiegetikora salto egin!

3.pertsona kanpodiegetikoa da pertsonaia. 2 paragrafotan dago banatuta eta ez da kasualitatea. Lehenengo paragrafoan protagonista landetxe batera joan da nobela irakurtzera, liburuaren amaieran doa eta berak kontatzen digu irakurtzen den hori, irakurtzen dabilen nobelan emakume eta maitale bat txabola batean daude. Bigarren paragrafoa, berriz, beste plano bat da nobela barruan sartzen gara, intradiegetikoa da bigarren zatia. Azken zatian kontatzen da bi maitaleak elkartu direla, iluntzean, gizonak laban bat du. Helburu zehatz bat daukate. Emakumea iparraldeko bidetik joaten da eta maitalea hegoaldeko. Azken hau etxe batean sartzen da eta irakurlea hiltzen du.

Hasieran fokua irakurlearengan, ondoren maitaleengan. Helburua irakurlea hiltzea da.

Ez da errealista, istorioak plano errealerara salto egiten du. Irakurleak badaki fikzioa ulertzen, baina ez errealitatea. Errealismo magikoa izango da, batek bere bikotea hegan joan zela esango balu nahiz eta hori benetan ez gertatu.

“Jarraibideen eskuliburua” (2014?) Julio Cortazar

“Es que somos muy pobres” (1953) Juan Rulfo gaztelaniazko idazlea eta argazkilaria izan zen. Errealismo magikoaren aitzindaria izan zen; *Pedro Páramo* eleberria da bere lanik ezagunena. Latino Amerikan ospetsu.

“Aquí todo va de mal en peor” Landa eremuak dakarren patua txarra soilik izan daiteke emakume eta txiroa bazara, erlijioak salbatzen ez bazaitu behintzat.

Narratzailea: mutiko bat, fidagarria. Arreba kontsolatzen du, ez du sartzen arazoaren barruan bere burua. Gizonezkoa da narratzailea. Kontatzeko moduagatik esan dezakegu urte gutxi dituela.

Diskurtsoaren antolaketan saltoak egiten ditu. Ez dauka errealitatea hautemateko gaitasunik eta gauza batzuk ez ulertuztat ematen ditu.

Tacharen galbidea da behia galtzea, behia galtzen du uholdeagatik.

Ez-ohiko elementu bat dago, uholdea. Heriotzak badu garrantzia. Uholde hau bereziki ez-ohikoa da. Horrek tamarindoa bezelako zuhaitza eramatea ekarri du. Ohikoa dena, ez-ohiko bihurtzen du. Ipuina Tacharen zorigatxean dago zentratuta. Bestalde, uzta galtzea ere ekarri du.

Genero gatazka dago. Gizonezkoa den narratzaileak ez ditu bere arriben arazoak. Tacha eta bere ahizpak trantsakziorako elementu bihurtzen dira. Behia galtzeak Tachak merkatuan balioa galtzea dakar. Zeukan gutxia galdu du. Bere etorkizuna pikutara joan daiteke halako gertaera baten ondorioz. Landagiroa, txirotasuna ikusten da. Mexikon kokatuko genuke istorio hau. Erljioak ere garrantzia du ipuinean (“Temor de Dios”, etab.).

Es que somos muy pobres. Oso txiroak garelako daukagu patu hau. Emakumeari egozten zaio mundu horretan bukatzeagatik, haiek eman behar dituzte azalpenak eta haiek dira hirigunera joan behar direnak, ‘auzotik datorrelako galbidea’.

1953. urtekoa da *El llano en llamas*. Errealista da, gerta litekeelako

Inazio Mujika Iraola - *Azukrea belazeetan* (1987). Euskal idazlea eta editorea da. Erein argitaletxean lan egiten du. Itzulpengintzan eta gidoigintzan ere aritu izan da.

“TRUMOI GIROAN. Leku garbietan ibiliko bazinete sikiera!”

1. Zein da baserritar jendearen lan fisikoaren deskribapena hain xehe egitearen arrazoia?

Baserrian bizi izan ez denak, ez du hori ezagutzen. Deskribapenak oso zehatzak dira eta errealitate zantzuak, baserriko lan horiek zehazki deskribatzen ditu erreala delako. Dikotomia, landa eremua iragana da eta galtzen ari den mundu batekin lotzen du. Kaleko bizitza beste mundu bat da, Eugenioren orainaldia. Amaitzera doan mundu bat bezela ikusten du. horregatik bizi izan duenak ez daki zer den hori. Ez dago landagiro bukoliko hori. Iragan urrun baten kokatuta dagoena, itzuli ezin den iragan bat. Distantzia handi bat ikusten du, landa giro hori ez da berriz horelako izango.

Deskribapen zehatz horiek landa eremua deskribatzen dute, eremu erreal bat deskribatzen du, baina Urrundu den iragan bati egiten dio erreferentzia. 1936 aurreko iragana kontatzen digu.

2. Errepara egiozu egiten dituen irudiei: “gurpil horia” (30), “kopeteko borladunekin mugimendu gorriak marrastuz” (30), “(baserriak) lamak desitxuratuak dantza triste batean” (35) “Ukabillaña haundittuk” (35), “lepoa bihurritutako oiloari bezala” (37)... Zer adierazten dute?

- “gurpil horiak” → eguzkiari
- “(baserriak) lamak desitxuratuak dantza triste batean” → beroarekin forma desitxuratu.
- “Ukabillaña haundittuk” → Ukabilak bezain gerezi handiak
- “lepoa bihurritutako oiloari bezala” → Protagonistak galduta dabilzela esateko, zoruen pare

Metafora horiek baserri mundu hori erreala dela adierazteko erabiltzen ditu. Hizkuntza literario poetikoa darabil. Lurrari lotuak daude, inguruneari lotuak. Tokian tokiko erreferentziak egiteko erabiltzen dira. Guk horrelako metaforak ez genituen egingo, beste mundu mota bat adierazten dute.

3. Kontalariaren begiradari zein joera nabari zaio iraganarekiko? Tragikoa, lirikoa, nostalgikoa, komikoa, zorrotza, epailea, salatzeak...? Zehaztu aipua.

Bere koadernoan idazten duen bitartean umetako kontuak ekartzen ditu gogora. Ez da nostalgia. Berak esaten digu. Batetik, helduaroan kokatzen da. Badago ikuspegi mitiko bat. Ez daki gogoratzen duen hori zenbateraino den egia edo gezurra. Oroitzen du, baina ezin da horrela gertatu, irrealak delako. Tabu bati buruz ari zaigu. Oraingo begiradatik mitoak ikusten ditu.

“Neronek ere, kontatzeko erabakia hartu badut...benetan gertatu ez delako ematen ditugun eskerren pareko.”

“Parabisu gogor baina irudimenezko baten irrikiaren gisara sumatzen ditut baserriko gomuta oparoak” (27.or).

Baina nolabaiteko autonomia lortzen duzunean (...) orduan hasten zara kontu zaharrak berritzen. Bere garaian ohizkoak iruditu zaizkiznak, orain mitikoak suertatzen zaizkizu. (28. or.)

Mitikoak diren oroitzapenak ekartzen ditu gogora, garai bateko mundu bati buruzkoak. Hor dago errealismo magikoaren gakoak.

Mito izendatu duen hori argitzeko ahalegina izango litzateke ipuina.

4. Eguraldiaren eta giroaren deskribapenek zein helburu dute? Badu garrantzirik ipuinaren baitan? Hasieran bero handia egiten du, baina etengabe ari da esaten ondoren eguraldi txarra datorrela. Trumoiak badute garrantzia bereziki. Hori Mikelaren heriotzarekin lotu daitekeen zerbait da. Lehen trumoiarekin batera heriotza etortzen da.

Sargoriarekin hasten da istorioa, baina hodeiak etortzen hasten dira (hodeiak-goatak...), gero euria egingo duela aipatzen da eta azkenerako trumoiak daude ekaitza. Eguna okertuz doa. Izenburuan Trumoi giroan ikusten dugu, titulua ere eguraldiarekin erlazionatuta dago.

Eguraldiak eta giroak, ipuinaren giroa dakar. Atmosfera hori itogarria da, sargoria.

Heterotopia→gauza ez-ohikoak gertatzea, ohikoagoa izan daiteke. Ito sentazio hori dago. Sugegorriak trumoi giroan ateratzen dira gehiago.

5. Haur jolasetako kantuen errepikaketaren helburua zein da? Zein funtzio betetzen dute errepikapenek? Gomutaren mina adierazteko errepikatzen dira kantuak. Martiuxe deitutako

bizilagunari abesten dizkiote, Abesten duten bakoitzean norbait “iraintzen” dute, gaiztoak direla pentsatzen baitute.

Hautzaroa eramaten dute Eugenio. Kantuak 1 eta 2 planoetan azaltzen dira. Bi planoetan aurkitzen diren gauza bakarra da. Haur abesti hoiek iraganaren ebokazio, katalizatzaile bihurtzen dira.

6. “Goata dirudi” esamoldea ere bi bider gogoratzen da? Noiz? Zein da helburua? Eta zaldia dirudien lainoak badu esangurarik? Azaltzen da geroago beste zaldirik?

1. Hodeiei begira zeudenean, Mikelai esan zion.
2. Mikela hilda dagonean, sudur zuloetan 2 guata zituen.

Ahizparekin lainoak nola ikusten zituen gogoratzen du. Lainoetan zaldia ikusten zuten, eta medikuaren bila joatean, anaia behorraren gainean doa. Guata eta zaldia heriotzarekin lotu daitezke. Lainoan ikusitako elementuak zoritxarraren aieru bihurtzen dira, aieru izan gabe momentu horretan.

Beraz, goata ahizparekin iraganean zituen oroitzapenak gogorarazteko erabiliko du.

7. Mikelak beti eskutik darama Eujeniotxo, baina gero honek bakarrik joan behar du (36), ez daki nola jokatu. Zer ondorioztarazi nahi digu egileak? Bada beste esapiderik argudio hori indartzeko? Beti doa arrebaren atzetik. Dependentsia handia du. Bukaeran sugeak hozka egin ondoren, eskua askatu behar izaten dio eta Eujeniotxo galduta sentitzen da. Amak “gaur gizona bezela egon behar dek” esaten dio behin eta berriz.

8. Hurrek Martiuxeri eginiko isekaren eta honek egotziriko maldizioaren arteko proportzionalitaterik badago? Errepikapenek, kasu honetan, zein funtzio dute?

Martiuxeren esaldia hiru aldiz agertzen da, bereziki nabarmengarria baita. Gauerako gorpu izango da, baina biharko gorpu ezta ere. Martiuxeren mehatxua 3 aldiz agertzen da istorio osoan zehar. Maldizio hori gero bete egiten da (ez-ohiko, ohiko bihurtzen da).

9. “Parabisu gogor baina irudimenezko baten irrikaren gisara sumatzen ditut baserriko gomuta oparoak” (27). Kontalariak ipuinaren hasieran esandako honi zein zentzu hartzen zaio amaieran? Paradisua ez da zerbait gogorra, oximorona edo kontraesana gertatzen da. Berak paradisu bezela dauka iragana. Paradisu bezela kontatzen du dena, baina benetan tragikoa da.

Gerra ostean. Narratzailea mutilkoxxorra, baserriko gazteena.

Lehen baserriko lana gogorragoa zela dio, baina beso gehiago zituztela.

Mikelarekin gertatutakoa? Ez zuen sinetsi nahi. Mikela bere arreba da.

Barne testuartekotasuna: Trumoi giroan ipuinean umeez gereziondora joatera erabakitzen dute, gereziak biltzera. Baina ez du fruiturik ematen. “Trumoi giroan” loreak soilik ematen ditu.

alderatu “itzaletik itzalera”n gerizondoan haurren hezurak.

Testuartekotasuna? mezurik gabeko heriotza ipuineko andrea, izugarria???, mitoak eta horrekin erlazioa

Ez zuen sinetsi nahi eta ez zien senideei kontatu nahi atsoak esandakoa eta gero gertatu zitzaizola gertatutakoa Mikelari. **Bele beltza agertzen da, heriotza...** errealismo magikoa.

Azpititulu bat dauka, *leku garbitan ibiliko bazinete sikiera* - Izenburua, berriz, Trumoi giroan.

Ipuin liburu batetik dator, Azukrea belazeetan da ipuin liburua, bertako liburuak beste izenburu batzuk dituzte: Regina, Trumoi giroan... eta ipuin liburu honetako ipuin guztiek azpi titulu bat dute, horiek beraien artean erlazioa dute. Testu barruko esaldi bat azpigitulu bihurtzen da. Alderdi formaletik, lehenengo izenburutik abiatu beharko ginateke. 5 azpiataletan dago banatuta. Trumoi giro beteko egun bat kontatzen digu.

Ipuinak bi plano ditu, Eugeniotoxok kontatzen du istorioa, bera orain heldua da, baina haurtzaroan gertatutako zerbait kontatzen du. 1.planoan Eugenio aurkituko dugu, helduaroan. 2. planoan, berriz, Eugeniotoxo.

Hasieran, iraganeko gertakizun bati buruz hitz egiten du Eugeniok, adibidez lehenengo atala. Landa eremutik irten da, familiak bultzatu diolako. Oinordekotza ikusten da, ez da zaharrena, beraz, ez da baserriarekin gelditzen. Ikasketak burutu ditu eta bulego batean dago lehenengo planoan eta 1.atala bulegotik kontatua dago, Eugenioren ahotsarekin. Narratzaile autodiegetikoa da. Egunenik metaliteratura egiten du, istorio bat idatzi duela kontatzen baitu. Kuartila baten ari da idazten. Idatzi duen ipuin horri buruzko erreferentzia zuzena egiten digu. Eugeniok idatzi duenaren inguruan gogoeta egiten du. Autorreferentziala da normalean **metaliteratura**, baina ipuin honetan, bere istorioari egiten dio erreferentzia zuzena. Egia da 5 ataletan dagoela banatuta, baina 2 plano nagusi daude eta hori da garrantzitsuena. Giro bat sortzen ari da hasieran, non ezusteari bidea ematen dion. 2.atalean, batetik, Eugenio dugu eta, bestetik, Eugeniotoxo. Narratzailea desdoblatuta dago. Ume ikuskera nabarmentzen da Eugeniotoxoren aldetik. Ez dago heldu ikuspuntu bat. Bi protagonista ditugu 2.planoan (Eugeniotoxo/Mikela). Eugeniotoxo narratzaile bardediegetikoa da, baina ikusle bezala kontatzen digu. Testigu lana egiten du. Eugeniotoxo nahiz eta ikuslea izan protagonista ere izan daiteke.

2. planoko gaia: gertatuko denaren zatikako kontaketa, eguraldia okertu ahala istorioa ere okertuz doa.

1.zein 2.planoan pertsonaia nagusiak Mikela eta Eugenio edo Eugeniotoxo dira. Mikela pertsonaila da, baina Eugeniotoxo borobila dela esan daiteke. Mikelaren heriotzak Eugenioren haurtzaroaren uztea eta heldutasunerako sarrera eragiten du, Eugeniotoxo izatetik Eugenio izatera nola pasatzen den. Nahiz eta gertakizunak Mikelari gertatu, ipuin honetan Eugeniorengan izan duen eragina da garrantzitsuena.

Hasieran Mikelaren babesa du beti, beti eskutik helduta, baina Mikela hiltzean ez du berriro ere bere eskua edukiko eta heldutasun hori lortuko du. Horregatik, esaten dio amak "orain gizon bat izan beharko zara".

1.atala-1.planoa. 2. atalean 1.planoan jarraitzen dugu baita ere Eugenioren ahotsean, baina Bigarrego atalaren erdialdetik hasten da Mikelaren istorioa. 3, 4 eta 5 ataletan Eugenioren planoak dugu, Mikelaren istorioa.

Paratestuari dagokionez, aipu/epigrafe bat dago. Kavafis egilearen berri emateko erabiltzen da paratestu hori. Esaldi horrek erlazioa dauka oroitzapenekin, zehazki lehenengo planoko metagogoetekin dago lotuta. Aipu hori **Kavafis poetaren Ahotsak** izeneko poema batetik dator, poema horren edukiak ipuinarekin lotura duelako.

“Itzaletik itzalera”

Mujika Iraola, Inazio (1987): “Itzaletik itzalera. Guregatik han egon beharko zuketen” in Azukrea belazeetan, Donostia: Erein, 101-110.

Auzitegi bateko deklarazioa narratzen da.

Bertan, Jazinto izeneko gizon bat da epaitua bere emazte/haurrak hiltzeagatik eta dagoen testigu bakarra Valentin da (hori da narratzailea). Istorio barrutik kontaktzen du dana, **lehenengo pertsona singularrean (pl/sg jarri)** eta narratzailea autodiegetikoa da. Barne fokalizazioa dago (barne sentimenduk, etab). **Testigu ikuspuntutik kontaktzen du** dana. **Orojakile mugarta, selektiboa. pertsonaiek dakitenari lotua.** Fidagarria da narratzailea?. Orainaldian gauza kokatuta, baina iraganera egiten du salto, analepsien bidez. Espazioari dagokionez, orainaldiko planoan auzitegi batean kokatzen gara, itxia zein erreala da espazio hori. Iraganeko kontaketarako, aldiz, espazio ireki bat dugu, zelaia.

Genero aldetik ipuin bat da, baina aitortza bat ere bada. Aitortza horretan salatzailea da eta errudun sentitzen da. Denbora guztian justifikatzen ari da egoera horren aurrean hori egin behar izan duela. **Subjektibitatearen garrantzia ikusten dugu, aitortza** bat egiten duzunean aitortza zurea da. Gertakizunen lekuko izan zen.

Protagonista Valentin da, baina berez bera lekukoa da. Gertatzen dena jasaten dutena Jazinto, emaztea eta haurrak ziren. Ipuin honetan garrantzitsuena da Valentinek hartzen duen erabakia Jazinto salatzea, horregatik da protagonista.

Itzaletik itzalera ibiltzen ziren bikotea ziren Jazinta eta emaztea (ia ez ziren herritik ibiltzen, elizara ere ez ziren joaten).

Hain pobreak dira umeak ezin dituztela hazi, horregatik hiltzen dituzte 3 ume horiek. Haurdun gelditzen da beti txortan egiten jarraitzen dute. Azkenekoarekin hil da erditzen ari zela Agedi, umea baita ere.

Pertsonaiak: Valentinek aitortza bat egiten du, konzientziako karga bat du, beraz, garapen psikologiko bat dauka, erabakitzen duelako auzokoa salatzea herri guztiaren aurrean

Lehenengo mailako pertsonaia Valentin, bigarren mailakoak Jazinto, emaztea eta haurrak, hirugarren mailakoak guardia zibilak, beltzez jantzitakoa (epailea). Beltzez jantzitakoa deitzea epaileari pista bat da, Valentinen jakintza maila zein den esaten digu, berarentzat ez da ohikoa epaile bat ikustea.

1934. urtean gaude. Espaziori dagokionez, alde batetik, epaitegia dugu, eta, bestetik, auzune hori (landa eremuan dago "herri" hori) Landa eremu horretan, Intxurri baserria da Jazintoren baserria. Mendi puntan kokatzen da (heterotopia: ez-ohiko gauzak ohikoago). Badirudi inor ez dela joan azkeneko urtetan. Epaitegiak arrotasuna erakusten digu.

Erreparatu idazkerak biltzen duen hizkeraren errepresentazioari ere.

Ipuina elebiduna da. Gaztelera = autoritatea epaiketan. Legearen hizkuntza gaztelera da. Ikusten dugu Valentin gaztelera ari denean euskaraz baino gehiago kostatzen zaiola. Dialektoan ari dira Valentin eta Jazinto eta gainera Hikan. Autoritate hori arrotza da, Espainiakoa horregatik gaztelaniaren erabilera. Kolaboratzen du epailea eta guardia zibilekin, horrek ere errespetua ematen dio eta errua handiagotzen da.

Hiru hizkera:

- Autoritatea gaztelera korrektoa
- Ipuina euskara batuan
- Dialektoan herri hizkera edo.

Barne-testuratekotasuna (egile beraren obretan agertzen direnak) **dela eta, ipuin honetan Mujikaren beste ipuinetako zein elementuren oihartzunak aurkitu dituzu? Zein efektu sortzen dute lotura horiek?** Barne-testuaratekotasuna idazle beraren lan ezberdinetan nolabaiteko testuaratekotasunak aurki ditzakegunean. Gereziando japoniarra. Autoritatearen errepresentazioa. Leku eta elementuak errepikatu ipuin guztietan. **Tolosa inguruko herria.**

Reginako aipaizaren salaketa lotu daiteke Valentinen salaketarekin. Salaketaren gaia "auzotik dator galbidea". Bi ipuinetan dago salaketaren gaia, baina batean auzokidea da eta konzientziako karga dauka, bestean apaiza da eta lasai geratzen da salatu ondoren.

Gereziando japoniarra istorio honetan heriotza da, bertan daude umeez hezurak. Trumoi giroan ipuinean umeez gereziandora joatera erabakitzen dute, gereziak biltzera. Baina ez du fruiturik ematen. "Trumoi giroan" loreak soilik ematen ditu. Elementu hori bi ipuinetan dago.

Terrala (behelaino pisutsua). **Heterotopia, "Regina"ren antzera. Zibilizazioa. Kartzelan bukatuko du Jazintok, baita Karmenen aitak ere. Zibilizazioan gaztelera da autoritatearen ahotsa. Denboraren antolaketa**

"Regina" ez zen errealismo magikoarekin zuzen zuzenean lotzen, baina ume baten ahotsa genuen eta espazio zein denboren bikoizketa genuen.

“Trumoi giroan” errealismo magikoan sartuko dugu, agureak botatako birao bat errealia bihurtzen delako. Denborarekin jolasten da. Narratzaile bera zen, baina 2 plano ezberdinetan. “Itzaletik itzalera” ipuina errealia da, gertagarria da, baina errealismo magikoa kontateknika berriak ere badira eta hori betetzen du ipuin honek?. Baina nahiko ez-ohikoa da guraso batzuk 3 ume nahita hiltzea eta laugarrenarekin hiltzea. Regina ere horrela hiltzen da, erditzen. Gaia ez da fantastikoa, baina ez-ohikotasun hori gereziondo japonarriarekin dago lotua. Kontaketa ez da tradizionala, istorioa ez dago kronologikoki kontaktuta Regina bezala, horregatik Errealismo magikoaren zantzuak eduki ditzake. Hemen ere beste begirada bat du, legearen aurrean. Gereziondo japoniarra agertzen denean arreta jarri behar da. Gereziondo hori berezia da, horregatik gertatzen dena ez-ohikoa da.

Irakurlearen igurikimen (espektatiba) ortzimuga: zer espero dugun irakurriko dugunaz, igurikimen batzuk sortzen ditugu.

Diglosia ikus daiteke, botere hizkuntza dago hori gaztelania da. Hizkuntza aniztasuna ikusten da. Batetik, tokiko hizkeraren lekukotasuna dugu. Hizkuntza aniztasuna ere errealitatea irudikatzeko baliabide bat bihurtzen zaigu.

Bestelako testuartekotasun zantzurik aurkitu duzu? Juan Rulfo. “Es que somos pobres” “Es que somos muy pobres” ipuinarekin lotuko genuke. Gatazka gertatzeko arrazoi nagusia txirotasuna dela esango genuke. Txirotasunak eramaiten zaitu bestela ulertu ezin den gauzak egitera.

Egitura, 3 pieza daude

Ipuinaren hasieran azaltzen da lehengo aldiz. 103 eta 107. orrialdeetan agertzen da. Azpitutulua ipuinaren azken esaldia da. Ez dago aipu edo epigraferik besteetan bezala.

3 ataletan dago banatuta.

- 1: oraina + iraganeko oroitzapenak
- 2: galdeketa
- 3: gertaera

Lehenengo atalean fisikoki auzitegian dago, baina oroitzapenak kontaktzen ari da. Nahiz eta lehenengo atalean egon pentsamendu horiek deklarazioaren ondorengoak dira. Bigarren atalean berriro atzera egiten du salto, hor baita galdetegia.

1.atala kronologikoki 3.a da, 2.atala 1.a, 3.atala 2.a.

Teknikoki, *in extrema res* deituriko egitura du. Amaieratik hasten da kontaktzen. Ordena kronologia apurtzea dakar.

**in media res* → erditik hasten da kontaktzen.

“MILA BEDERATZIREHUN ETA HOGEITAHAMASEI. Zer etor dakiguke okerragorik?”

1. Zein da ipuinaren egitura? Nola osatzen da narrazioa?

2 plano daude, plano narratiboa bikoizten da. Bata Jermanen lagunak kontatzen duena da, hau da narratzaileak (objektiboki kontatzen du) eta gero narrazioa bigarren mailan (komila artean kontatzen den istorioa) dago. Eliasek kontatzen duena. Plano bat distantea eta hotza da Jermanena. Testuinguruan jartzen du irakurlea.

Lehenengo pertsona, barnediegetiko autodiegetikoa da, kominen artekoa. GALDETU.

2. Zein jarrera du Eliasek hurrekiko? Zein harreman du haiekin?

Haurrei erakutsi nahi die Euskal Herriko parajeek zer nolako garrantzia duten, naturarekiko lotura estua edukitzea nahi du. Eliasek natura maite duela dirudi (Jaunkoiko eta mendiaren arteko metafora ageri da bertan). Harreman ona dutela ikusten da, barre asko egiten baitute elkarrekin. Haiengandik ere ikasten duela aipatzen du. “Nik auzunez kanpokoak erakusten dizkiet eta berayek ordañetan auzunekoak (77.orr.)”. Jarrera ona, konfidentea, laguna. Umeei erakusten diela dio, baina berak umeengandik ere ikasten duela azpimarratzen du “

3. Herritarren sineskeriak nola hartzen ditu?

Eliasek ez du ulertzen herritarrak nola egon daitezkeen horren arduratuta zuhaitz bat ez delako loratu (gerizondo japoniarra), hasiera baten ez du sinesten horregatik urte txarra izan daitekeenik.

Elias pertsona birbila da, eraldaketa psikoogiko bat dago. Hasieran eszeptizismoa du, apaizari kasu egiten dio eta sineskeria hutsak diela pentsatzeko esaten dio eta poliki-poliki lerratzen joaten da eta sinisten hasten da. Umeak auzoko kontuen bitartekari bihurtzen da. Informazio iturri dira. Argudiaketa arrazional bat ematen dio, nolabait lasaitzeko.

“Ikusi gabe ez dago sinesterik”. Ikustearekin sinesten hasten da. San Juanek esan zuen hori. Apaiza ikusten hasten da eta ikustearekin batera sinesten. Ipuinean San Juan aipatzen da.

“Ikusi ez duenak ez daki zer den hau” esaldi hau Eugenio txorekin azaltzen zaigu. berriro erlazioa ipuinen artean, mitoak sinesmenak, errealismo magikoaren zantzuak.

4. Apaizaren iritzi berekoa da? Beti? Errepara egiozu Jainkoa eta Deabrua nahiz heriotza aipatzeko darabiltzan terminoei.

Apaizak behin eta berriz errepikatzen du siniskerietan arreta ez jartzeko, garrantzitsuena Jaungoikoaren legeetan sinestea dela. BUKATZEKO DAGO, jainkoa? Deabrua aipatzeko aker beltza erabiltzen du. “Yaungoikoaren legeak siñisteko esan dit beñ eta berriz. (79.orr.)”. Apaizak Eliasi esaten dio ez sinisteko siniskerietan eta jainkoan sinisteko (bibliako pasarteetan ere), eta hori ez al da siniskeria bat? Zer da erlijioa?.

Apaiza pertsonaia laua da, berak erlijio kristauan sinisten du eta hori ez da aldatzen.

Guztion nagusi, ahal guztiduna... da deabrua. Segaduna da heriotza.

Ipuinaren gaia: sineskeriak (arbasoena, fedea...)

5. Baserritarren naturarekiko lotura nolakoa da? Zergatik larritzen dira gereziandoa ez loratzeaz? Estua? Sinesten zutelako enparantzako gereziando hori loratzen ez bazan zerbait okertu egingo dela, Jaungoikoak eskutik uzten zituela urte hartan (78. orrialdea).

6. Eguzkitzako ahizpa bikiak eta haien osabaren ibilerak direla eta, bizi garaiko jarrera nola islatu da hil ondoko gorputzen posturan? ????

7. Komenta ezazu Roxarioren azken egunetan apaizek jokatuko duen papera. Nola interpreta daiteke? Apaizak Roxariori jaunartzea ukatzen dio, horrek Rosario errudunago sentitzea eragiten du eta ondorioz erotu egiten da. Nola interpreta daiteke hori???

Roxariok aspirina hartu du. Jaunartzera baraurik joan beharra dauka.

8. Eliasen fedea zein bilakaera izango du hilabete horietan zehar? Argudiatu erantzuna aipuak zehatuz. Amaieran ere ez daki ziur gertatutako guztia zerbaitegatik izan den, gereziandoagatik edo zer, ...? 85.orrialde amaiera, 86 hasiera.

ZUZENDU GABE DAUDE!!!!

9. Amaierako aipamenak nondik hartuak dira? Zergatik jotzen du testu horretara?

Gotzon, turutak...

Gotzon → aingeru esan nahi du.

Biblia: paradisua eta apokalipsia (lau zaldunez irudikatzen da eta turuta jotzen dute).

Letra ere aldatu egiten da. Hitzez hitzeko aipua da.

Sinisduna da, eta beraz, Bibliari egiten dio erreferentzia. Berak apokalipsiaren zantzuak ikusten ditu hor.

Eztakit laugarren gotzon edo aingeruak turuta yo ote dun. Eztakit eguzki erena, illargi erena ta izarretako erena narriotu ote diran, ayetako erena illundu dala, ta bai, egunek bai eta arratsek ere argia ereneraiño galdu ote duten.

Sabino Arana, Lizardi eta apokalipsia (biblia). Hiru testuartekotasun??? horiek daude esplizituki.

Aditua da, jakintsua da.

77.orrialdea gerizondoa, ez da loratu. Terrala 82. Badago giro fantasmagoriko bat.

Azpi titulua agertzen da ipuinaren azken esaldian, hori aurretik beste ipuin batean ikusi dugu. Nahiz eta ipuinak desberdinak izan, egitura aldetik batasuna dute.

“Mila bederatzirehun eta hogeitamasei” da izenburua → gerra zibila datorkigu burura. Beraz, pentsa dezakegu gerrari buruzko ipuin bat dela eta ez da horrela, **gerra aurreko ipuin bat da.** Hilabete batzuk lehenago kokatzen da eta **azpi tituluak gerra datorrela iragartzen digu.** Gerran hil da Elias, horri egiten dio erreferentzia azpi tituluak.

Epigrafeak gerraren ingurukoak dira. Horrek nolabait irakurlearen aurreiritzia indartzen du.

"Belaze erdian masturbatzen ari den ehize zakurra da gerra. Semenaren ibilbidea du bere aroak lurrera iritsi eta usteldu artean". W.Mahaffy. Asmatutako idazle bat. Aipu apokrifoa dugu, hau da, asmatutakoa. Aipuan gerraren zentzugabetasuna azaltzen digu.

Egitura formalari dagokionez, bi planotan konatzen da ipuina.. A planoan Egunerokoa nola lortzen duen da eta bertan narratzaileak kontatzen du dena, gero B planoan dugu egunerokoa eta **metairuzkinak** biltzen dituen, atal hori orokorrean narratzaileak kontatzen du. Batasuna narratzaileak ematen du (egunerokoa kontatzen duen narratzailea beste bat da). **Narratzaile hori, A planoan bardediegetikoa da. Baina B planoan kanpodiegetikoa. Ez du egunerokoaren gertakarietan parte hartzen. Iruzkina batzuk egiten ditu horren inguruan.**

Beraz, bi plano nagusi daude, baina B planoaren barruan bi zati daude eta nagusia metairuzkina da, baina bere barnean dugu egunerokoa. Egunerokoari plano intradiegetikoa deritzogu. Germanek ematen dion egunerokoaren barruko istorioa kontatzen baitu. Metairuzkinak egiten ditu, egunerokoaren iruzkinak baitira.

Obabako liburuaren lehen atalaren egitura berbera aurkitzen dugu, "Camilo Lizardiren..." *Azukrea belazeetan* 1987koa da, baina *Obabakoak* 1988an. Hala ere, badakigu Obabakoak atalka argitaratu zela hasira batean eta 1982an argitaratu zen lehen atal hori, beraz, hortan oinarritu zela esan daiteke.

Gereziondo japoniarra baretestuarterkotasuna da. Lehenengoan gereziondo japoniarra loratu egiten da eta gerezia bila joaten dira "Trumoi giroan" bai?. Bigarrenean "Itzaletik itzaleran" gereziondo japoniarraren azpian lurperatzen dira 3 haurrak. "Azkenik Mila bederatzehun eta hogeita hamasei" ipuinean gereziondoa ez da loratzen, ipuineko hari kronologikoa saltoka dator.

Camilo Lizardin grafia garai hartakoa? da errektorearen garaikoa.

Gereziondoa txadon atzean kokatzen da. Testuarterkotasuna da Sabino Arana aipatzea. Sabinianoa da Elias, berak esaten du. Ingi orria da. **Neologismoak** dira asmatutako hitzak, isparringi horietako bat da eta ipuinean ageri da, txadon (eliza) eta ingi ere. **Hizkeraren erabilerak, errealismo magikoan eragina du.**

Arana aipatzeak testuinguru batean kokatzen digu, idazkera bat eta baita ideologia batean ere. Euzkadi, Yaungoiko... idazkera. Gudari izan zela esan daiteke.

"Gañik-gañ ibiliko nintzateke egaztia banintz...". Kantu bat da, aipu bat. Roxaio hegan joaten da Eliasen etxera. **Xabier Lizardi poetaren poesia batekoa da, Mendigaña** (letra etzana?).

Iruzkintzearen batera, transkribatu egiten du, beraz, metaliteratura da. Narratzaileak istorioa transkribatu gabe kontatu dezake, baina mekanismo horren bidez, sinesgarritasuna lortzen du. Horrek pisua ematen dio kontakizunari.

Errealismo magikoaren zantzuak ditu?

- Kontateknika ezaugarriak ditugu (plano/ahots ezberdinak).
- Gereziondoaren presentzia.
- Aieruak ohikotzat hartzen dira.
- Rosariok hegan egiten du? Berak dio hegan etorri dela, baina erotuta dago. Beraz, horrelako kasuetan errealismo magikoko zantzia dela esan behar da? **GALDETU**. Bere buruaz beste egiten du gero. Esaten ditun gauzak ez dira zentzudunak. Sinesgarria da kontatzen duena? Aurreko guztia ez bada sinesgarria, baina sinesten badugu, agian hegan egin du eta horregatik da errealismo magikoa. Ez-ohiko elementu bat aurkitzen dugu. Eliasen argudiaketa sistema hori gure egiten dugu, ez da sinesgarria. Roxariok hildakoengana joan nahi du.
- Hildakoak hil eta gero aipatzen dira.

“Macario/Regina”

Errealismo magikoarekin loturiko 80ko hamarkadako beste hainbat autore eta obra (eta beste erruralismo kasu batzuk) **PPT-ak IRAKURTZEKO**

Joseba Sarrionandia - *Narrazioak* (1983). Euskal idazlea, Olerki eta narrazio laburren hainbat liburu idatzi ditu, baita eleberri batzuk ere.

“Mezurik gabeko heriotza”

Azpiatalka antolatzen da, 4 atal ditu. Atal bakoitzean ahotsa, perspektiba aldatu egiten da.

Martin izeneko 22 urteko mutiko bat da protagonista, “desgaitasun” bat dauka, ez da bestek bezain heldua. Martini buruhandia dela esaten diote, ezaugarri hori beti izan da arazoak dituen jendearekin (Marijokin esaten genun). Lehenengo eszenan ama, alaba eta Martin, Ezekiel aztiaregana joaten dira.

Edabe bat ematen diote eta Ezekielek bele diseatu bat ematen dio.

Lehenengo atala “Idiota batek” deitzen da, ipuinaren izena letra etzanean doa, atalaren izena kakotsen artean.

Lehenengo atalean narratzailea autodiegetikoa da. Martin da narratzailea eta kontaketa subjektiboa lehenengo pertsonan dago kontatuta. “Idiota batek”. Ipuin baten barruko ipuin bat.

Bigarren atalean “Sorhoetako belharra bezela” 3. pertsona singularra da narratzailea, hau autodiegetikoa da; narratzaile horrek Asunen inguruan hitz egiten du, protagonista bai da Asun, baina kontalaria ez. Kontalaria Asuni jarraitzen dion norbait da.

Hirugarren atalean “Isil zaitez” berriz ere Martin da narratzailea. Bertan, arratsaldetan Martin eta Asun kantina urez betetzera joaten direla kontatzen da. Ezekielen inguruko suposizioak egiten dituzte.

Laugarren atalean berriro ere 2. ataleko narratzailea errepikatzen da. Bi atal horietan fokua Asuni jarraitzen dio, horregatik da protagonista, Martin eszenatik kanpo geratzen da. Narratzaile mugatua da hemen, pertsonaia bati lotuta dago, Asuni zehazki. Ez da orojakilea, ez baitaiki Martin hil dela iturrira iristen den arte.. Asunen araberrako pentsamenduak erakusten dizkigu. Asun eszenan ez badago, ez dakigu zer gertatzen den.

Egiturari dagokionez, 4 atal ditu. 1/3 Martinengan daude zentratuta eta 2/4 Asunekin lotuta.

Zergatik dago 4 ataletan banatuta? Atalen izenburuak aipuetatik datoz. 1. atala "Idiota batek" Shakepereren aiputik dator. 2. atala (ezeziel profetarenarekin) , 3.atala (W. Faulkner). Baina 3 aipu daude eta 4 atal, azken atalaren izenburua ipuinaren izenburuarekin dago lotuta "Iluntzeko heriotza" deitzen da.

Ipuineko izenburuak iradokitzen digu mezurik gabeko heriotza izango dela, baina hori ez da horrela Martin hil aurretik heriotza iragartzen duten zenbait mezu daude istorio osoan zehar. Mezu horiek interpretatzen jakin beharko dugu:

- "Iluntzerako amaitu da dena"
- "Itoko al da"
- "Belea ere lurpera eramane al duzu?"
- "Berdin da, eraman dezala. Bihar hartuko dut"
- "Hil kanpaiak..."
- Atsoak: "bele beltzak heriotzaren mezulariak dira" istorio amaieran Martin hilda dagoenean iturri ingurura bele ugari agertzen dira.
- "Zakurren zaunkak"

Gaztainantzako agureak usadio zaharrei atxikitako mundu ikuskera du. Gaztainantzako agureak garai bateko pentsamenduak adierazten ditu. "Zakurra zaunkaka" mezu gaizto bat izango zen..."Gabontzak irintzika" nobait hil egingo da...

Lukuko astiaren (agurea trumoi giraon lotuta) inguruan esaten da 7.umea zela, esaten zen 7. umeak doai batzuk edukitzen zituela. Errabiarena aipatzeak ere zuzeneko lotura dauka Obabakoarekin, bertan ere aipatzen baita errabia zuen txakur baten istorioa. Obabakoak eta Azukrea belazeetan lanekin lotuta dago ipuin hau. Autore ezberdinak, baina garai berdintsuak. Buruhaundia, zakurren zaunkak, kanpotar arrotzak....

Bukaeran dator giltza. Mezua Martini ematera doaz. Heriotzaren arteko mezulariak dira beleak. Izenburuak aurkituko ez dugunaren berri ematen digu, despistatu egiten gaitu.

Narrazioak: haurtzaroko oroitzapenak zirela esaten digu Sarrionandiak. Martin pertsonaia Benji pertsonaiaren ohoretan idatzitakoa da. Benji hori Hotsa eta ardaila (testuartekotasuna) laneko pertsonaia da. Benji eta Caddy/ Martin eta Asun. Hamlet obratik dator Hotsa eta ardaila izena.

Astoan doaz, gurdian... ze garai? Afrikako gerra aipatzen da, noiz izan zen? Garai horretan kokatzen da. (1859-1860?). Sarrionandiarentzat garrantzitsua izan zen garai hori. Ez gaude Afrikako gerra garaian, baina bai inguru horretan. Ameriketara joaten da seme bat, emigrazio garaia. Atzerritar bat herrian beti da mehatxu (Obabakoan ere Alemanak).

Ipuin hau errealista da? Gertaera irreal da. Ez da errealista elementu fantastiko bat sartzen da amaieran. Belea hilda dago eta bukaeran Martin hiltzarekin batera hegan ateratzen da. Agian renkarnazioa? egon da? Martin belean bihurtu da? Heriotzak bizitza hartzen du. Martin bizirik dagoenean belea hilda dago, baina behin Martin hilda heriotzak (beleak) bizitza hartzen du. Mezua eraman du eta bere betebeharra egindagoan joan egiten da (hau guztia irakurgai bat izan daiteke. Ez da azalpen errealista bat egongo amaiera hori azaltzeko. Hasieran errealia eman dezake, baina amaierak horrekin hausten du.

“Obaba”

“Obaba” testua: Gipuzkoa ahaztu bat erakusten zaigu. Landa eremua hegemoniatik gaizki ikusten da. Leku ruralek sinonimo gaiztoak dituztela konturatzen da. Arroztasun sentimendua zuen hitz horiekiko (rual/mitoa). Orduan, antzinatasuna hasi zen erabiltzen.

Obabako mundua Freud baino lehenangokoa da. Bestelako azalpen bat ematen zitzaizkien gauzei horregatik.

Ppt- egelan dago. Bernardo Atxagaren inguruko informazioa.

[Juan Mari Irigoien ere aipatu genuen *Babilonia*. Errealismo beltza; Pako Aristi eta Anjel Lertxundi.] 1. gai amaieran daude hauek zer?

2. GAIA: 1990eko euskal literatura: errealismoa eta subjektibotasuna

Ur Apalategi - artikulua

- Lasgabasterrek zein iritzi du euskal eleberri errealistaren inguruan? Zein da bere hipotesia? Zein izan da euskal eleberri errealista garatzeko eragozpen nagusiena?

Lasgabasterren ustez, euskal eleberrigintza zuzenean igaro zen erromantizismo ohiturazaletik (ohitura horiek idelizatzen dituen) modernotasunera (euskal herriko esperimentalismoa), hots, errealismoaren etapatik igaro gabe. Errealismoa da genero gisa eleberria heldutasunera iritsi dela adierazten duen markagailua.

Euskararen muga soziolinguistikoak izan dira eragozpen nagusienak, horregatik errealismo hori euskal eleberrietara berandu iritsi zen. Errealismoa garatzea oztopatu du. Ohiturazko prosa da bertako ohiturak azaltzen dituen, baina erromantikoa dela esaten badugu idealizatu egin dutela da.

- Mikhail Bakhtinek (nobela teoriko nagusienetako bat) eleberria eta errealismoa lotzen ditu, eta haren izaera polifonikoa hartzen du oinarritzat. Zabal ezazu baieztapen hori Apalategiren artikuluan oinarrituz.

Laburbiltzeko, **Bahktin-entzat ez dago errealtatearen pusketa isolatua baino gauza irrealagorik; zati guztiek osatzen dutenari deitzen zaio errealtate.** Ez dago, ezta ere, errealtatearen zati bakar baten errepresentazio literarioa baino gauza antierrealistagorik.

Eleberri errealistak —eta Bakhtin-en pentsamenduaren baitan “eleberri errealista” esapidea pleonasma bat da— errealtatearen zati ezberdinen oihartzunak biltzen ditu. Hortik XX. mendeko euskal eleberrigintzaren arazo nagusia: **nola idatzi euskaraz euskara bera euskal errealtatearen zati gutxitu bat baizik ez denean?**

- **Zergatik ez da errealista Txomin Agirreren nobelagintza?**

Eleberriaren ezaugarri nagusia, bere berezitasuna egiten duena, errealtatearen aniztasun sozial, linguistiko nahiz ideologikoa islatzeko gaitasun polifonikoan datza. Horrexegatik esan daiteke ohiturazko eleberria —zeinen arketipoa Txomin Agirreri zor baitiogu— errealtatean aurkitzen diren osagaiez harilkatuta egonagatik ez dela “errealista”.

Ohiturazko eleberriak, edo teorizatzaile errusiarrek “idilio erregionalista” deitzen dion horrek, errealtatearen zati bat isolatu eta idealizatu egiten du.

- **Euskara-erdaretan bizi den errealtatea errepresentatzeko zein irtenbide tekniko erabili zuten Txillardegik, Mirandek eta Saizarbitoriak? Non dago hiruen arteko jauzia?**

Txillardegik eleberri “errealistagoa” idatzi omen zuen, eta osoki euskaraz. Nola ote? Kontua da, mintzairak bere baitan garraiatzen duela —idazleak bere burua zentsuratzen ez badu, behintzat, eta errealismoa helburu badu— gizartearen polifonia. Txillardegik gizarteak eragindako barne-gatazka existentziala mimetikoki errepresentatzeko ordez —pertsonaia ekintzan murgilduz, eta beste pertsonaiekin harremanean jarriz—, **lehen pertsonan (singularra) eramandako bakarrizketaren narrazio-teknika erabili zuen.** Honela euskararen errealtate murriztaren arazoa saihestea lortu zuen. Dena Leturiaren begietatik ezagutzen dugu. **Egunkari bat irakurtzen dugu, horrek egiten du sinesgarri. Ez du emakumearen ikuspuntua ematen. Egunkaria euskaraz idatzen ari da.**

Mirandek, kasu, **Euskal Herriarekin harremanik ez zuen mundua hartu zuen kokagune.** Batean zein bestean argi dago **ezin dezaketela pertsonaiek euskaraz jardun “errealtatean”;** baina konbentzioz onartzen dugu hori. Hitz egiten ari diren hizkuntza hitz egiten ari direla sinesten dugu. ERREALISTA da beraz?

Saizarbitoriak: *Ehun metro* eleberriarekin **hizkuntzen nahasketa oraindik sistematikoagoa eta errealistagoa.** Errealista da, baina sabuespen gisa hartuko dugu. Euskarak errealtatean bizi duen egoera diglosikoa baliabide narratologiko honi esker inoiz baino hobeki adieraziz.

Baliabide narratologiko zehatz batzuk erabiltzen dituzte. Hain zuzen ere, errealitate diglosikoaren berri emateko eta beraz, hori sahisteko.

- **Aldiz, zer gertatu zen 80ko hamarkadan?**

80ko hamarkadan, aldiz, idazle gehienek iraganean edo fantasian aurkitu zuten euskararen irrealtasun soziala sahisteko modua. Gaurkotasunean aurki ez zezaketena, iraganean edo irudimenak sortutako munduetan aurkitu zuten idazle gehienek. Gaurkotasunean kokatutako munduek irakurlearen eguneroko esperientziari dei egiten diotenez, oso zaila da sinesgarria izatea, errealitatea ukatzen duen mundu euskalduna deskribatuz. Iraganak edo fantasiak askatasun gehiago ematen diote idazleari, irakurlearekiko kontratu tazito laxoagoa? baimentzen dutelako.

Istorio guztiak landa eremuan kokatzen ziren. Denok sinesten dugu errealista dela. Ez dago euskal gizarte moderno bat. ?

- **Apalategiren ustez, zein faktorek eragin zuen eleberri errealistaren gorakada?**

Esan dezakegu gure hizkuntzaren pisu sinbolikoaren emendatzeak argitu dezakeela bat-bateko eta ezusteko errealismoaren normalizatzea. Apalategiren ustez, **Obabakoaken sariztatzea izan zen hausturaren unea**. Sariak berak eta sariari jarraiki zitzaizkion itzulpenek ezagupena ekarri zioten Atxagaren obrari, eta errebotez euskal corpus literario guztiari ere. Euskararen egoera soziolinguistikoa ez da ikaragarri aldatu 1980 eta 1989. urteen artean; baina bai, ordea, euskararen egoera sinbolikoa. **Euskara, Atxagari esker, literarizatu egin da;** beste hitzetan esanda, hizkuntza literario bilakatu da munduaren aurrean.

Normalizatu egiten du euskal obren irakurketa, militantzia kulturalaren zirkulu mugatuetatik atera egiten du euskaraz ekoizitako obren irakurketa. Jakina denez, literaturak bere buruaz jarduteko joera dauka —joera honi metaliteraritatea deritzo teoria literarioan—, eta hortik erraz ondoriozta dezakegu, **euskal gizartean errealitate izatera iritsitakoan has daitekeela literatura euskal gizarte erreala kontatzen, alegia, errealismoa egiten.**

1985.urtean sekulako **eztabaida** egon zen **Bernardo Atxaga eta Txillardegiren** artean, literatura autonomiaren inguruan, **ea literaturak nazio eraikuntzarako baliagarria den elementu bat izan behar duen ala autonomia izan behar duen**. Literatura egitea literatura egiteagatik.

“Obabakoak” ez zen jardun indibidual bat izan. Inazio Mujikaren obran ere ikusi daiteke zein eragin izan zuen Bernardo Atxagaren obrak.

- **Zein ezaugarri ditu errealismo “klasikoak” Apalategiren arabera?**

Eredu honen mugek nahiko zehatzak dirudite: 1. **Eleberria da errealismoa** gauzatzen deneko generoa. 2. **Toki, denbora (eta, maiz, pertsonaia zein gertakizun) errealak tartekatzen dira** asmatutakoekin, status hibridodun eremu sasihistoriko bat osatuz. 3. **Pertsonaia nagusi(ar)en biografia(k) izaten d(ir)a munduaren deskribapena helburu duen delako eremu sasihistoriko horren osagaiak elkartzeko aitzakia(k) eta tresna bateratzailea.**

- Edonola ere, **errealismo “klasikoaren”** ondoan, **errealismo moderno** bat aipatzen du Apalategik? Zertan datza? Horri loturik, **Nouveau Roman** mugimendua, Nathalie Sarrautek dioenez, **errealismoaren zein hutsune betetzera heldu da?**

Errealismoa klasikoa XIX.mendekoari egiten dio erreferentzia. Kontua da, **errealitatea aldakorra** dela eta **garai batentzat baliagarri** zena hurrengoarentzat ez dela izaten nahikoa. **Errealismoa ulertzeko modua aldatu egiten da garaia aldatu ahala. Errealismo klasikoaren kontateknikak aldatzen doaz.** Garai bakoitzak bere errealismoa daukala esan daiteke, beraz; edo, beste modu batera azaltzeko, errealitate ezberdin bakoitzak **narrazio-molde berezi eta berriak eskatzen** dituela, errebelatua izateko. Horrela uler daiteke **Henri Mitterrand**-ek, XIX. mendeko eleberrri errealistaren espezialista ezagunak, dioena. Bere iduriko, **Joyce eta Kafka**-rekin hasi, **Virginia Woolf**-ekin jarraitu eta **Nouveau Roman** deritzonera **doan eleberrigintza abangoardista ez da errealismoarekiko haustura gisa interpretatu behar.** Aitzitik, horiek guztiak **XX. mendeko errealitate berrien konplexitateak luzatutako erronkari erantzuteko modu errealistagoak** baizik ez lirateke.

XIX. mendeko errealismo “klasikoa”ren ondoan errealismo modernoak geuk bizi dugun errealitateari egokituagoa— izango genuke bere baliabide tekniko guztiekin (perspektibismoa, mikrodeskribapenak, behaviourismoa, eta abar).

- **Zer da Roland Barthesek “effet du réel” deritzana?**

Beste azpimintzaira bat erabiliz, **gezur bera egozten** zion Roland Barthes-ek **estetika errealistari**, “**effet de réel**” (‘errealitate-efektua’) aipatzen zuelarik. Literatura-mota honek **irakurlearen baitan agerrarazten duena ez litzateke errealitatea bera**, **baliabide estetikoaren bitartez lorturiko errealitatearen sententzia** baizik. **Errealitate efektu** bat sortu daitekeela esaten du Rolandek, ezin da errealitatea jaso guztiz.

- **Errealitatea eraikuntza bat bada, ze da errealismoa?**

Horrexegatik baieztatu daiteke **errealitatea eraikuntza bat dela**, beraz **ez dela existitzen**, eta, hortaz, **literaturak proposatzen digun munduaren errepresentazioa** gehienez ere **aurretik genuen beste errepresentazio bati kontrajartzen zaiola**—beharbada, hau ere aurreko hamarkadetako literaturak guregan ezarria—, eta **inolaz ere ez errepresentazio bat baino egiagoa litzatekeen gauza bat, zeina errealitatea deituko litzatekeen.** Beraz, **errealismoak sortzen du errealitatea, eta ez alderantziz.**

Postmodernitatea modernitatearen osteko aroa. Modernitatea industrializazioak baldintzaturiko aroa. Inspirazioan sinisten zen eta originaltasuna jarraitzen zen. Postmodernitatea, globalizazio mundu horretan egiten den literatura. Modernitateak jarraitzen zituen lerroburuak albo batera uzten dira.

- Zein ezaugarri nagusi ditu 90eko euskal eleberri errealistak? Zergatik hitz egiten da 90eko euskal eleberri errealistaz? **VIP**

Erdigunean dauden idazleak errealmora pasatzen dira. Errealismoaren nagusitasun eztabaidaezinaren beste seinale bat, gure esparruko idazle nagusiek —kapital sinboliko handiena pilatu dutenek— azkenaldion egin duten bira errealista dateke. Izen batzuk ematearren, hona hemen errealismoan berrikitan sartu diren idazleen zerrendatxo ez-osatua: B. Atxaga (*Gizona bere bakardadeanez* geroztik, nahiz eta Behi euskaldun baten memoriarekin ere elementu errealista batzuk agertu asteasuarraren prosagintzan), J. L. Zabala (*Galdu arterekin*), Itxaro Borda (*Amaia Ezpeldoi detektibesaren abenturei hasiera eman dienetik*), Xabier Mendiguren (*Berriro igo nauzurekin*), eta abar. Zer esanik ez, ez dakiguna da, zein neurritan nagusitu duen errealismoa idazle handiek bere aldeko apustua egiteak, eta zein neurritan, alderantziz, errealismoari esker egin diren nagusiago idazleak.

90. hamarkadan nukleo urbanoetan kokatua... errealismoa adierazteko.

DENBORA LERROA (euskal literaturan):

Erromantizismo ohiturazale: *Garoa*

Esperimentatzailea: *Leturiaren egunkari ezkutua, Haur Besoetakoa, 100 metro*

Errealismo magikoa: *Obabakoak, Narrazioak, Azukrea Belazeetan*

Errealismo berantiarra? (beste literaturetan leheneago).

XIX. mendean → errealismoa

XX.mende hasieran: Virginia Woolf, *Orlando*. James Joyce, *Ulises*. Proust (kontateknikak aldatzen hasten gara idazle hauekin).

Hauen ondotik etorriko dira Frantziako *Nouvelle vague* (olatu berria), *Nouvelle Roman* (nobela berria).

Horrekin batera abangoardia etorriko da; kubismoa, surrealismo, futurismoa, etab.

Eskema hau ezin da euskal literaturan aplikatu.

Iban Zalduaren artikulua: 90eko urteak...

Bernardo Atxaga. Euskal idazle entzutetsu eta nabaria da, Euskal Herrian nahiz nazioartean. Bereziki, **1988an?** plazaratutako *Obabakoak* ipuin-bildumak eman zion ospea; hainbat hizkuntzatara itzulia da

***Gizona bere bakardadean* (1993)**

Carlos esaten zioten, baina agian ez zen horrela deitzen. Hotel bateko zuzendaria da Guiomar eta Ugarterekin batera.

Lekuak: Bartzelona (Montserrat mendiaren ingurua), hotel batean dago, 1982. urtean gaude, diktadura garaia pasata gaude eta futboleko mundiala jokatzen ari dira. Polonia-Belgika jokatuko da eta poloniarrek hotel horretan daude.

Guiomarri "Foksi" deitzen diote eta ezizen hori militantzia garaiko ezizena da, zehazki **ETAko militantzia**. Carlosek dio Miarritzen errefuxiatu politiko gisa egon zela eta baita **kartzelan** egon

zela. Enpresari bat bahitu eta hil zuen Zarauzko modelo zinema azpiko aretoan, beraz, eskuak odolez zikinduta dauzka.

Dei batzuk egiten ditu, bat hotelean dagoen bati eta bestea 17 zenbakira deitzen dio eta eskegi egiten du, ondoren berriro deitzen du. Telefonoan dauden beste aldekoek esaten dute 15 egun doazela kanpoan. Janaria nahi dutela esaten diote besteek. Latak jaten dabiltzalako. Beraz, logela batean daude ezkutatuta (hoteleko instalazioetan), aditzera ematen da zerbait egin dutela eta Carlos ezkututzen laguntzen ari dela. Carlosek afaria eramaten die. Guiomarrei ez dio sekretu hori kontatzen, baina zerbait susmagarria antzematen du. Carlos, Guioimar eta Ugarte komando bereko kideak ziren, beraz, pentsa dezakegu anmestia legearekin atera zirela kartzelatik eta hotel bat eraikitzen dute Bartzelona aldean (a las afueras).

Okindegi bat dago, iturri bat ere eta baita gasolindegi bat ere. Carlosek hoteleko okindegia egiten du. Okindegi azpiko ezkutalekuan dauzka bi ETAkide horiek; "Jon" eta "Jone". Gasolindegi bat ere aipatzen da. Carlosek anai bat dauka Kropotki. Anaiak bere garaian militaratu egin zuen eta orain psikiatriko batean dago.

Inmedia res hasiko litzake liburua ez da azaltzen Jon eta Jone nola iritsi diren hotelera (erditik). Hotelean Poloniako selekzioaz gain, polizia instalatuta dago. Guiomarrek zerbait susmatzen du eta polizia ere iada hor dago.

Ahotsak entzuten ditu, polifonia; zehazki ezagutu duen jendearen ahotsa, arratoi kenduta. Arratoi: ahots txarra?, eta arratoiari kontrajarriko zaio Sabinoren ahotsa. Sabino hilda dago, ETAkide zen. Garai bateko militantearen irudikapena da, eta nolabaiteko lasaitasuna ematen dio. Beste ahots bat ere badu, anaiaren oroitzapenak ematen diona.

Nobelak kontatuko digu 5 egunetan hor gertatzen dena. Umea ere garrantzitsua da, Pascal deitzen da Ugarteren semea da (5 urte ditu). 1982. urtean Polonia gerra hotzaren garaian dago, komunismo garaia. Ez da kasualitatea Poloniak jokatzea futbol partida hori.

Anaiaren izena anarkista baten izena da, liburu bat idatzi zuen **La conquista del pan** izenekoa (Carlos okina da, horrek ere zerikusia dauka).

Nobela Ekainaren 28an hasten da LGBTBIQ+ egunean

Sofan hasten da istorioa. Paleolitikoaren deskribapenak zerikusia dauka, maskorren bila joaten ziren. Estetika gisa erabiltzen zituzten, koilareak egiteko. Apaintzeari sekulako garrantzia ematen zioten, kapritxosoak zirela esaten zuten. Horrek garrantzia handia izango du, izan ere, herrialde komunistetan kapritxoak oso garesti ordaintzen dira. **Nasa Reticulata**

Egunkarian egoera Palestinarra, ETAREN berri bat ageri dira futbol partidaz gain.

TESTUARTEKOTASUNA:

Iparragiren kanta bat da. Kantua amaitzen da heriotza aipatuz, beraz, spoiler egiten digu. *Zugatik emango nuke bizitza...* Hildako bat baino gehiago egongo dira.

abiatu zen berak benetan maite zituen mendi, bide eta etxe haien gainetik. *Hara non diran mendi maiteak, hara non diran zelaiak.* Inolako ahaleginik gabe, bere memoriak letra jartzen zion programaren soinu-bandak erabiltzen zuen kanta zaharraren doinuari: *hara non diran mendi maiteak, hara non diran zelaiak; baserri eder, txuri txuriak, iturri eta ibaiak. Hendaian nago txoraturikan, zabal-zabalik begiak, Oi Euskalerr...*

Ugarte denetan “gizonena da”. Haragia emango die Jone eta Joni, langile batek esaten dio ea zergatik emango dien haragia txakurrei eta Carlosek esaten dio hurrengoan kalera botako diola.

Ezkutaletik ateratzen da Jone zigarro bat erretzera, eta Carlos hasarratu egiten da. Sabino bere ahotsak ez zuen hori inoiz onartuko, legeak hautsi dituelako. Jone eta Jon iturrira joaten dira beste egun batean zigarro bat erretzera, Pascual umeak ikusi egiten ditu eta Jonek pistola ateratzen dio. Hor hasten da dena korapilatzen. Carlos orduan irtenbide batean pentsatzen hasten da.

Kartografia bat erakusten digu eta poliki-poliki ixten joango da. Nobelak aurrera egin ahala erditik aurrera erritmoa azkartzen da.

Gizona bere bakardadean PPT egelan

Ramon Saizarbitoria. euskal idazlea da, [euskal literatura](#) modernoaren aintzidaritza.

Hamaika Pauso (1995)

100 metro (1976.urtean argitaratu zen). → Errealismo esperimental. *Egunero hasten delako* (1969.urtean idatzi zen) → Bi plano daude. Plano batean gizon berritsu bat (1.p.s.) dago, bere esanak bakarrik entzungo ditugu. Beste planoan, Giselle daukagu. Estazio baten bakarrik agertzen da eta honek maitasuna eta sexua batasun bezala ulertzen du. Haurdun geratzen da. Abortatu aurreko ibilbide bat kontatzen digu nobelak. Suiza inguruan kokatzen dela esan daiteke, hizkuntza nahasketa bat ikusten da. *Ene Jesus* (1976). Muturrera eramandako nobela. Pertsonaia bat ohean etzanda dago, gaixorik dago. 80ko hamarkadan ez zuen ezer idatzi 1995. urtera arte eta orduan idatzi zuen *Hamaika Pauso*. 1996.urtean *Bihotz bi*. 2000. urtean *GNL-Gorde Nazazu Lurpean*

Atariko, hamaika pauso

- 1.pasarte

Iñaki Abaitua digu. Amaieratik hasten da istorioa “in extrema res”. Esaten digu Iñaki Abaituak hilda bukatuko duela. Garrantzitsuago da kontaketa abentura eta ez abenturaren kontaketa → Saizarbitoriaren estiloa definitzen du; dena dela, kontatzen duen horrek ere pisua du. Beraz, atarikoan ikus daiteke kontatzeko moduari garrantzia emango zaiola.

2 plano:

Batek istorioaren hasiera kontatzen digu. Bukaeratik kontatzen digu (kontakizunaren abentura bat daukago hor). Gainera, bigarren paragrafoan idatzi duenaren gaineko analisisa egiten du, iruzkin bat egiten du, *metairuzkin* bat hain zuzen ere. Istoriaren amaieratik zergatik hasi den berresten du. Anakronismo batetik abiatzen gara. Linealki kontatu beharrearen, amaieratik hasiko du.

Bi plano erabiltzea eta istorioa amaieratik hasia dena kontatzen duela Saizarbitoriaren eleberrigintzan.

Julia agertzen zaigu, eleberrian zehar agertuko dena. Garrantzitsua da pertsonai hau. Eduardo Ortiz de Zarate alias zigor/zapa/zator/zadorra (Gasteizkoa da). Daniel Zabalegiren sumearioa. Polizia

Kronotopoa: Bartzelona 1973. urtean kokatzen da istorioa. Iñaki Abaitua hiztegi lanak egiten zegoen bertan.

Kontakizunarekin hasten da, istorioaren hasieran kokatzen da. Nola ezagutu ziren eta noiz aipatzen digu. Jarraian salto egiten du eta metaliteratura/metairuzkina ere egiten hasten da, idatziko duena nola idatziko duen azaltzen du (kontakizunaren abentura egiten ari da). Ondoren, memoriari buruz hitz egiten digu. Kontakizun honek gure memoriak bezala funtzionatu behar du. Bukaera hasiera da. Memoria ere anakronikoa da. Memoria antolatu nahi duzunean, memoria bera eraikitzen ari zara.

Testuartekotasuna: Proust (madalenarena, usaimaena...), Butor, Claude Simon, Guell Park Gaudirena, gaudiren ezaugarri bat moskaikoak dira. Memoria plater hautsi bat da esaten du istorioan, horrek lotura dauka mosaikoarekin? Ez da erraza antolatzeko. Beti geldituko dira hausturaren zatiak, memorian berdina gertatzen da. Errealismoaren inguruko gogoeta egiten ari da. Memoriari fikzioari gehitzen diotenak badaude.

Iñaki Abaitua berreskuratzen du berriz ere. Kontaketa egiturari ematen dio garrantzia, Iñaki Abaituak. Iñakik idazten duen "Hamaika Pauso"-z ari gara (kakots artean jarri dugu, letra etzanez idatziko bagenu Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* litzateke).

Daniel Zabalegiren sumarioa Abaituak berrikusi zuen eta gainera berak idatzi zuen "Hamaika Pauso".

Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* eleberrian Iñaki Abaitua protagonistak (nobelaren amaieran hil egingo dena), "Hamaika pauso" idatziko du eta bertan Daniel Zabalegiren fusilamendua kontatuko digu.

Zutik ETAren alderdi ideologikoaren inguruko aldizkaria.

Narratzaile batek iruzkin metaliterarioak egiten ditu (zein da). Beste plano batean Iñakiren istorioa dago. Iñaki Abaitua hiztegiilea da. Azken hitza "muga" izango da.

1973 baino beranduago hilko zen Zabalegi ETAkidea. 1975eko irailaren 27, frankismoaren garaiko azkeneko fusilamendua. Txiki eta Otaegi hil zituzten.

Protagonista bat ardatz duten eleberririk ditugu (*Hamaika pauso* eta *Gizona bere bakardadean*). Angel Otaegi agertzen da bigarren argitalpen horretan. Berez ez da eleberrian agertzen, baina Daniel Zabalegi izango da errealitateko Otaegi. Otaegiren trasuntoa (errealitatean oinarritutako

pertsonaia bat fikzio bihurtzerakoan egiten den jauzia). Liburu batean beste egile bateko ohiartzuna (Atxaga/Saizar).

Gudari zaharraren gerra galdua (2000)

J.J Lasa psiquiatra → Garai hartan ez zen psikiatra, ikasle zen oraindik. Bizia salbatu ziona (Torniketea egin zion). Protagonistak aita mutrikuarra. Miren maite du. "sartu ez bagina, hobe". Irakurketa aktiboa. Kokatzea izen ugaritasuna

100 metron, hamaika pauson zein hemen erlojua ageri da, elementu hori garrantzitsua da. Istorio honetan 4:30etan dago beti erloju hori geldi. Gauza txarra iragartzen zuela iruditu zitzaion protagonistari. 1937ko apirilaren 20an hanka 4:30etan (ez dakigu goiza edo arratsaldea den) galdu zuen. Hiltzen denean ere 4:30 dira. Erlojuaren sinboloaren bitartez egun horretako 4:30tan bere denbora gelditu egin zela esaten digu.

Pertsonai nagusia gudari zaharra da, ez du izenik. Plano ugaritasuna → gertakizunen kronotopoa ???

Gudari zaharrak bere bizitzaren zertzeladak kontatzen dizkigu narrazio batez. Orainaldian gaude Donostian zehazki, ondoren taxia hartzen du eta Elgetara doa, Intxortara. Beste plano bat notarioaren pasartea da, oso garrantzitsua dena istorioan. Gerran lubakian dagoeneko ere eta Amiano hiltzen denekoa.

Plano guzti horiek orainaldikoarekin konparatuta iraganean daude (analepsiak), iraganeko oroitzapenak dira. Izateaz plano bat daukagu Donostian gertakizun batzuk eta taxian egiten duen bidaia; oroitzapen asko ditu, 1937 apirilaren 20ra eramaten gaituena. Denbora guztian dago behartuta iragan hortara joatea. Hanka hor galdu zuen, konponezina den zauri fisiko bat. Miren ere agertzen da. Galtzen ditu gorputzeko atal bat zein Miren, hau da, bere zati bat galtzen du eta baita maitasuna ere. Prostituta (gerra amaitu eta 10 urtetara gertatzen da hori) eta medikuari erakutsi zien muina. Nolabait, ezin izan zuela galdu zuen galdutako maitasun hori berreskuratu bere bizitzan.

1. Ramon Saizarbitoria. *Gorde nazazu lurpean* (2000): "Gudari zaharraren gerra galdua"

PERTSONAIK	Lehenengo mailako protagonista: gudari zaharra. Bigarren mailako protagonista: Amiano, Egia/Elortza, notarioa. Bestelakoak: Miren, taxista. Gudari zaharra biribila da, bere bilakaera psikologikoa ikus dezakegu. Notarioaregana joaten da Elortza eta Egiarekin. Bietako bat ez zegoen berekin momentu horretan (Egia). Egia izenak sinbolismo bat badu, egia esango du notarioaren aurrean?? Notarioarena behin eta berriz
------------	--

	<p>errepikatzen da horrek esan nahi du garrantzia handia duela istorioan, urratsak ematen ditu. Ez da Burgosera joaten, hanka galdu zuen lekura baizik, Aszensio ermitara. Biribila da gudari zaharra, bilakaera psikologiko bat ikusten da nonbait. ARRAZIOA:Gauza asko zalantzan jartzen ditu. Bere bilakaera psikologikoa adierazten digu (hasieran burgosera ez joatea hitz ematen dio Amianori. Bapatean, pentsio hori gaizki etorriko ez zaiola pentsatzen du eta notariora joatea erabakitzen du. Egia eta Elortzarekin joaten da. Notarioan, hala ere, hanka galdu zuen lekura joatea erabakitzen du.</p>
LEKUA	<p>Intxorta, Burgos, Aszensio, Donostia, Eibar (taxiko bidean agertzen da)</p> <p>Burgos sinbolikoki desiragarria ez den kokaleku bat da. Gauza negatibo guztiekin lotuko genuke. Nolabait etsaiaren eremua da.</p> <p>Intxorta, gerra galdu baina duintasuna ez, euskaldunen eremua.</p>
DENBORA	<p>Denboraren planoak → orainaldikoa eta oroitzapenak. Kontakizuna memoriaren arberakoa da, plater hautsi bat bezalakoa.Hau da batetik orainaldia dugu eta orain hori dago etengabe oroitzapenez erasotua. Egun bakarreko kontakizun horretan iragana sartzen da bonbardeo bat bezala. Metakomentario asko egiten ditu, iruzkinak egiten ditu. Kontakizuna ez da kronologikoa. Kontakizunaren tenpoa, memoriaren joscara da.</p>
KONTALARIA	<p>Fokalizazioa kanpoko da, gudari zaharrean dago fokalizatuta, baina ez beti. Baina momentu batean badaude prolepsiak ere eta horietan fokua aldatzen da. Momentu batean iragartzen du hanka galduko duen gerrara doala, momentu horretan hanka galdu gabe dauka, narratzaileak, aldiz, badaki galduko duela. Narratzaile fokalizatu bat da, baina etorkizunetik egindako gogoeta da. Bukaerara egiten du salto. Hor dago narratzailearen aberastasuna. Nolabait bi oroitzapen daude hor.</p> <p>Kontalaria hirugarren pertsonan dagoen narratzaile kanpodiegetikoa da.</p> <p>Fokalizatu nagusia gudari zaharra da, baina batzuetan fokoa aldatu egiten da, maiz lizentzia batzuk hartzen ditu, beste gauza batzui erreparatzeko. Gudari zaharrak hauteman ezin dituen elementuak ikustarazten dizkigu.</p>
KONTATZEKO MODUA	<p>Askotan ez dakigu non gauden salto ugari egiten dituelako.</p>
PARATESTUALIT ATEA TESTUARTEKOT ASUNA METATESTUALIT ATEA	<p>Azalari dagokionez abstraktua da, kanposantu bateko atea ematen du, ez du lotura esaten denarekin (hori edizio batean). Beste edizio batean Intxorta ageri da hori bai da esplizitua.</p> <p>Paratestuari dagokionez, hasieran, Inaki Arriolari jartzen du. Horri eskaintza deritzogu. Seguraski kontakizun hau errealitatean oinarritutako gudari batean egongo da inspiratuta (baliteke Iñaki horri gertatu zitzaiola hori dena).</p>

Egunkarian Suarezzen (Espainiar estatuko lehenengo presidentea, 1976-1981) hitzak irakurtzen ditu. Gazte bat etortzen zaio sua eskatzen. Metxeroa lurrera botatzen du eta gudariak metxeroa hartzen

du. Bertan, ikurrila dago, horrekin kanpandorrea **ikurriña** jarri zutenekoa etortzen zaio burura. Lehenengoa, Joxean Elosegik jarri zuen Buen Pastorren. Horrek Burgoseko eliza ekartzen dio burura (bertan ere jarri baitzuten). Burgosekin batera burura etortzen zaio... **Otaegi Burgosen hil zutela.**

Testuartekotasuna: Castrillon hil zen Angel Otaegi. Otaegi aipatzea testuartekotasuna da, Hamaika pausoko protagonista nagusia idazten ari den laneko protagonista nagusia hortan dago inspiratuta, Otaegirengan.

Ucronia → existitzen ez den denbora bat. Utopia → existitzen ez den toki bat, ideala.

1. Erlojuaren inguruko pasarteak esanguratsuak dira. Zergatik? Zein funtzio betetzen du? Zein izan daiteke bere balio sinbolikoa?

Erlojuaren aipamenak hasieratik daude. 10. orrialdean dio bere omega erlojua...Omega, alfabeto grekoaren azken letra da. 40 urtean ez zaio hori gertatu eta justu egun horretan erlojua gelditu egiten zaio. Ez du intriga jartzen, kontatzen digu 4:30tan gelditzen dela erlojua eta orduan galtzen duela hanka, ez du kontatzen ordu eta toki berean hilko dela urte batzuk beranduago. 33.orrialdean badago eraldaketa bat. Onartzen du denbora hor gelditzea (hemen pertsonaiaren bilakaera ikusten da, onartu egiten duelako ezingo duela superatu). Bizitza guztirako gerrako gertakizun horri aurre ezin diola egin geratuko da.

2. Notarioaren "Harira!" aginduak isilarazi egiten ditu kontalarien xehetasunekiko joera guztiak. Zein dira kontrajarren-auzi honetatik (harira v. xehetasunak) eratorri daitezkeen interpretazioak? AZTERKETA

Amianoren antitesia notarioa da, Amianori gerrako xehetasunak gustatzen zaizkiolako eta notarioari, berriz, ez. Lan administratibo bat egiten ari da eta interesatzen zaiona gertakizuna da, baina ez gehiegi ere.

Egia → UHT (Union de Hermanos Proletarios). Sozialista zen. Egiak, bera han egon zela egiaztatzen du. Baina bera handik 2km-ra zegoen.

Elortza

3. Gudariaren eta Gerra Zibilaren zein irudi ematen da kontakizunean? Bada kritika edo autokritikarako abagunerik?

"Sartu ez bagina, hobe" askotan esaten du, hor badago beste ikuspegi bat bultzatzeko nahia. Autokritikarako joera du. **Iraganeko rebisiorik ez du onartzen Amianok.** Bi orritan lau bider errepikatzen da esaldi bera.

4. Gudari zaharraren gerra galdua narrazioan benetako pertsonaiak eta asmatuak, benetako gertakizunak eta asmatuak nahasten dira. Bildu adibide batzuk.

Suarez, Agirre lehendakaria, Ajuriagerra, Otaegi, Elosegik, J.J Lasa, Aizpurua (pertsonaia guzti hauek benetan existitu ziren).

Joseba Elosegik sasetakoa zen, gudari zaharra ere bertakoa zen. Joseba Elosegik benetan existitu zen, bere buruari **su eman** zion protesta modura Francoren aurrean.

Martiaritu batailoiko gudari zela azaltzen du notarioak, ez zen horrela izan, hor gezur bat dago. **Egiak ere gezurra esatn du bertan zegoela esatean.**

Metxeroa hartzen duenean eta ikurrina ikusten duenean hartzen du erabakia Burgosera ez joatekoa, sinboloen banalizazio bat dago. Bizitza galdu zuen ia ikurriñagatik. Sakratua zena garai batean, zentzu gabekoa, banala bihurtu da orain. **Burgosera ez joatearekin batera**

erabakitzen du Aszensora joatea. Kontakizuna fikzioa da, baina hala ere gezur horretan badaude egi batzuk, benetan existitutako jendearen erreferentziak daude.

5. “Hay que restañar (geldiarazi) las heridas de la guerra” esamoldea irakur dezakegu kontakizunaren uneren batean. Zein lotura du narrazioan kontatzen denarekin?

Trantsizio demokratikoa. Dena tapatu behar dela, etorkizunari begiratu behar zaiola. Gerra zibileko zauriak sendatu behar ditugu esan nahi du, esaldi horrek ez dauka zerikusia kontatzen zaigunarekin, gudari zaharrak zauri bat du, baina iada ezin du sendatu. Gerra zer den ez dakien norbaitentzako “gerrako gauzak gerran utziko ditugu”.

6. Galtzaile izan arren, duintasunak garrantzia berezia du narratzailearentzat eta Amianorentzat. Zein irakurketa eratortzen da ikuspuntu horretatik? ERANTZUN

7. Hori dela eta, zergatik du hainbesteko garrantzia Amianok? Zein rol jokatzen du kontakizuneko gertaerak aintzat harturik?

Xehetasunetan sartzen da. Amiano da memoria bizirik mantentzen duena, transmisioaren bitartez. Amiano hil egiten da. Momentu batean argazki bat azaltzen da, Burgosen epaitutako batzuen, horrek badu zerikusia memoriarekin. Bi harri ipuinean geratzen zaigun agertatzen da nolabait. Gerra bere azalean bizi izan dutenen lekukotasunak gero eta gutxiago dira. Denborak aurrera egin ahala, gudariak hiltzen joango dira, beraz, transmisioa nolabait etengo da eta memoria galduz joango da.

8. Kontakizunaren amaiera ezuste batekin ixten da. Edonola ere, zein mezu, zein interpretazioa eskaintzen da amaieran? GARRANTZITSUA

100 metroekin lotura dauka amaierak. Azken pasarteetan hil egiten da gudaria, momentu horretan ez dago fokalizatuta, hurrengo eguneko eszena ematen zaigu; jende gazte batzuk zulo horretara joaten dira. Bi interpretazio posible daude bukaera honekin: 1. alegoria bat izan daietke, gazte horiek zulo horretara memoria historikoa berreskuratzeko asmoz joatea. 2. gudari osteko gudariak??

9. Zein garrantzia du egiak, fikzioak eta kontatzeak kontakizunean?

Notarioa gertakizun indibidual zehatz historiko bat ebazten. Baina Amianok memoria bizirik mantentzea nahi du. Gertaera historiko hori xehetasunekin osatzen du. Notarioari ez zaizkio xehetasunak idaztea nahi. HISTORIA islatzen digun pertsonaia dugu. Aldiz, Amianok literaturara hurbiltzen gaituena.

Literaturak zerbait eman dakiguke HISTORIAk emango ez diguna. Literaturan aurki ditzakegu xehetasunak. Historiak datuak emango dizkigu, baina literaturak bizipenak ematen ditu. Beraz, alderatu ditzakegu historia/notarioa eta literatura/Amiano. Gudari zaharrak bizi du gerra eta ikuspuntu horretatik kontatu nahi du istorioa, notarioak ez du gerra bizi izan, horregatik ez du ulertzen.

Metafikzio historigrafiko bat erakusten digu. Guk irakurri duguna fikzioa da, baina badu egitik, beraz, fikzioak egia hobeto ezagutzen laguntzen digu. Saizarbitoriak 3 liburuetan kontatzen du ama gerrara noa pasarte. Badago beste pasarte bat Elgetan mairuena (atzamarrak moztu).

Eider Rodriguez. Publizitate eta Zinema ikasketak egin zituen, bihotz handiegia.

“Eta handik gutxira gaur” (2004)

“Mendekua” → errepublikaren koloreko lorak jarri zituen udaletxean.

Oroitzapenak. Blokeaututako oroitzapenak dira. Gertakizun tragiko batzuk gertatu zaizkion eta gordeta izan ditu oroitzapen horiek. Bilobaren arazo batek irekitzen du oroitzapen ukatu horien tapa. Manuel da hor bere fokua. Manuelekiko oinazea da herrira lotzen dion elementu bakarra. Manuel izan zen azken gizona.

Floren: herrian bakarti eta arrarotzat hartzen dute. Umezurtza da, ama hilda dauka eta aita lanera doa. Izebak hezten du. Queer hitzak jatorrian arraro esan nahi zuen. Irain bezela erabiltzen zen hasieran. Denborarekin bere egiten du. Gatazka identitario bat izan du. Ustezko heterosexualitatearen normatiba dago.

Aitona bilobaren arteko harremana garrantzitsua: konplizitatea dagoelako, sekretuak berditzen ditu. Aitonak bilobari kontatzen dizkio kontakizunak, berekin itzultzen da herrira. Konplizitatea dago haien artean. Transmisio dago. Alabari ez dio bere sekretua kontatzen, emazteari ezta. Aitona eta amarekin arteko harremana problematikoa da.

Herrira itzultzen denean oroitzapenak gogora ekartzen ditu. Bukaeran Floren harro sentitzen da, ihes egitea lortzen duelako. Gerrak ekarri zion familia bat sortu ahal izatea eta bizimodu berri bat transmititu ahal izatea bere familiari, ez faxistek ekarri zutena. Denboraren iragana adierazteko erabiltzen da “eta handik gutxira gaur”. Trantsiziorako balio dio.

¿Qué vida o qué? bi aldiz agertzen da. Bata alkateak esanda eta bestea Pericok (gominola saltzailea). Bere gaikide bat da azken hau. Galdera horrek aditzera eman dezake Perico hori izan daitekeela bere garaian alkate egon zena. Florenen mendekua ez da soilik loreak udaletxean jarri izana, bukaerako harrotasuna eta mendekua da: bere bizitza guztia ordaindu behar du nolabait hartutako erabakiarekin. Gerra zibileko faxisten idealak gaitzesten ditu. “Sólo habla francés y vasco”. **Transmisioaren gaia. Manexek ez zekien zer zen Gerra Zibila. Transmisio pertsonal eta indibiduala da agertzen dena.**

“Gerra zibilak” (2014). Iban Zaldúa *Inon ez, inoiz ez*

Emakume gudari baten azken egunerokoa (ez da guztiz egunerokoa, esanguratsuena kontatzen du). Amaieran, ertzainaren informea ageri da. Txosten idatzi bat da.

Metaliteratura / Metafikzioa. Sabiñe idazten ari da, lekukotasun idatzi bat daukagu. egiten ari da, azken eguneroko bat idazten ari delako eta hori berak esaten du. Literaturaren gaineko literatura da metaliteratura eta kasu honetan idazketa da ipuinaren genero edo alderdietako bat. Egunerokoaren izaerak baldintzatzen du kontakizuna. Idazketak badu bere garrantzia istorioan. Ustezko gerran bizi dituen esperientziak.

Garai desberdinetako jendea biltzen da, baina garai berdinean egiten dute topo eta istorio desberdinak bizi izan dituzte.

Ipuina ez da errealista norbait horrenbeste denbora mendian galdua egotea ez delako posible. Premisa errealista batekin hautsi egiten du. 100 urte inkomunikatuta bizirautea ez litzateke oso errealista izango. Ez da zientzia fikzioa, ez da errealista, baina fantasiako istorio bat bada.

Fantasia badago, baina ez dago elementu fantastikorik. Ez da erabat fantasiosoa, badaude gertakizun errealistak. Egituraketa bat du fantasia hori argudiatzen duena. Egituraketa arrazional bat dauka. Lehenengo karlistadetakoekin oinardekoek biziraun dute. Hiru aro ezberdinek bat egiten dute. **Helburua amaieran ez da kontakizun errealista bat sortzea, ipuin honetan ezusteekin jolasten da.**

Vietnameko gerra bukatu zenean ezkutatuta zegoen jendeak pentsatu zuen gerrak jarraitzen zuela, beraz, badauka premisa historiko bat. Hori Euskal Herrian gertatzea sinesgaitza da.

Sabineren zereginak: haragia gatzatzea, erropa josten du, Markel hurbiltzen zaio. Armak garbitzen eta tiroetan irabazten du beti. Badaude **genero aurreiritzi** batzuk ipuinean txertatua, emakumeen zereginari egotzi izan dakieken eginkizunak. Beste taldeko neska ikusten du eta inork ez dio sinisten. **"Inportanteena borroka jarraitzea da"**, esaten dio etengabe sarjentuak.

Izenburua *Gerra Zibilak* hemen garrantzitsuena amaierako **-k pluralgilea** da. Ipuina irakurri ondoren zentzua hartzen du, irakurri ondoren garai ezberdinetako gatazkak plano bakarrean jartzen baititu. Nolabait **gerra zibila kanpo semantikoa** esleitzen diote, **karlistadako gerrari edota ETArekin** lotura daukan biolentziari.

Aipua / Epigrafeak: Izenburuak iradokitzen duena indartzen du.

*Gerra guztiak dira gerra zibilak,
gizaki guztiak berdinak direlako.*

François Fénelon.

Francois teologo bat zen, aipu hori ez zuen euskaraz idatzi. Aipua ez da literala, **itzulpena** ez da berdina, gazteleraz ikus dezakegu ez duela **gizaki** jartzen, baizik eta **gizon**.

Kasu honetan idazle inplizituak ez du esaten 3 gerra zibilek bat egingo dutenik soilik, baizik eta gerra **ez zela gizonen kontua soilik, emakumeena ere bai** eta oso **eginkizun garrantzitsuak** izan zituzten gainera. Ipuinari beste indar bat ematen dio honek. Gerrak ez ziren gizonen arteko gatazkak bakarrik izan. **Emakumetasuna ipuin honetan oso garrantzitsua** da, hori adierazi nahi du **itzulpen** horrekin.

Bi plano garbi daude, emakume baten azken **egunerokoa**, gero **ertzainak aurkituko duena (informea)**. Ertzainak erabakitzen du ezkutuan gordetzea hori, ez du publiko egingo. Sabine da narratzailea bere egunerokoaren bitartez.

Metafora: Ispilu joku hori dago, bat egiten dute kontakizun horiek. Batetik daukagu gatazkaren espansio bat, gerra zibilaren espansio bat.

Zergatik da **garrantzitsuena borrokan irautea? Ugalkortasunerako bide bakarra Sabine** da, bera baita emakume bakarra. Sarjentuak ezin dio ezer esan, garrantzitsuena borrokan irautea baita, baina zein da borroka hori? **emakumeak duen borroka ari gara, gizonak esaten dutena egin behar du.**

Gatazkaren irakurketa hegemoniko batzuk, bestelako gatazkak ezkututzen dira. Genero ikuspegiari erreparatzen badiogu, bat Sabinekin jasotzen duena (Markelen aldetik). Emakumearen irudia askotan trasmisioarekin lotu izan da, emakumeen lana gudari berriak ekartzea zen. Bera berdin sentitzen da, baina besteek ez dute berdin tratatzen.

Miguel Angel Blanco, bukaeran oso ezkutuan aipatzen dena. **Aipu erreal bat, biktima errekonozitu** bat zen. 1980ko hamarkadan gaude, Miguel Angel Blanco hiltzen duten garaian. **San Ignacio eta Andra Mari egunean ikurriña altxatu eta Lauaxetaren poemak irakurtzen zituzten.**

Heterotopia: basoa hori elementu garrantzitsua da, **basoa baita gauza izugarriak gertatzen diren tokia.**

3. GAIA: Euskal gatazka eta euskal literatuta

“Hagina” (1999). J.L Otamendi (Jose Luis)

Aritz da protagonista. Aita, ama eta Lierni arreba ditugu. Lagun bat ere badu, Eneko. Eneko adoptatua dela jakin du. Gabonetan gertatzen da, 1999. urtekoak.

Herri batean gertatzen da (Azpeiti, agertzen diren leku izenak bertakoak direlako), protagonista eta Eneko errekarra joaten dira, zehazki amuko zubira joaten dira, bertan, **hagin bat aurkitzen du**. Aritzek **hagina beretzako hartzen du**. Aritzek **arrebarekin erakutsi** nahi dio. Lierni bere arrebarekiko **zeloak** ditu. Aitak ez dio lehen bezainbeste egiten **kasu**, desplazamendu bat egon da, horrek Aritzari autoritate zaurgarritasun bat eragiten dio. Beraz, Aritzek **hagina erakutsiko** dio Lierniri eta arrebak **egunkariko ebakin bat erakutsiko** dio, bertan **hildako bat** agertzen da eta honi **hagina falta** zaio. Orduan, Aritzek **hagina botatzen du ibaira**. Aritzek **hagina erakutsiz lezio** bat eman nahi zion Lierniri eta **azkenean alderantziz** gertatzen da, Liernik egunkariko albistea erakutsiz lezio bat ematen dio. **Zaharrenak gehien jakin behar duenaren ideia hausten zaio.**

Jose Luis Otamendi ageri da, bera Azpeitikoa da.

Narratzailea **kanpodiegetikoa** da, **3. pertsonan** kokatua dago, baina **fokalizazioa** uneoro **Aritzengan** dago. Aritz **pertsonaia biribila** dela esango genuke. Aritzek 12 urte ditu eta etxean aldaketa bat eman da, iada ez da etxeko txikia. Batetik, daukagu arrebarekiko zelo hori. Bestetik, jakin berri du **Eneko bere laguna adoptatua** dela, **egia azaleratzen da**. Azkenik, **hagina** dago, horren bitartez jakiten da pertsona bat hil dela, **bapatean jabetzen** da bera bizi den **ingurune horretan hildakoak** daude, etab. **Bizitza irekitzen hasten zaio, mutila koskortzen** ari da eta ingurunean gertatzen den **egiaz ohartzen** hasten da. Gatazka dagoen herri batean bizi da. **Haginarekin gertatzen den istorioak arrebarekin duen harremana aldatzen du? Berriro hagina botatzean, agian bere barnean zerbait aldatzen da.** Badaude informazio hutsune batzuk: Lierniri Leirek eman dio ebakina (ez dakigu nor den Leire).

Gatazka nagusia Aritzek bizi duena da. Gatazka bat dago beste gatazka baten barruan. Badu errealitate zantzurik? Zantzurik izatekotan, egunkarian agertu den hildakoaren zantzua izan liteke, hagina falta zaion hildakoa. **Jose Luis Geresta. Gure urte berean aurkitu zuten gorpua.**

“Politika albisteak”(2004) Eider Rodriguez. *Eta handik gutxira gaur*

Idoia eta ama dira istorioko protagonistak. Joseba ere ageri da. Zilborrean lizuna (ustela) atera zaio eta hori garrantzitsua da, **sinbologia** da. Kutzara batekin kentzen du eta lagun bati ematen dio ikertzeko.

Errealitatea distortsionatuta ikusten du. Kanean tiroak entzuten ditu, tiroen zuloak, etab. **Gerra Zibil** eta Euskal Gatazkaren arteko distortsioa du. Amak istorioak kontatzen dizkio, Gerra Zibilekoak: amildegi batetik botatzen zituzten hildakoak, eta beheko errekan odola agertzen zen.

Karpeta batean **Gara egunkaria ezkutatu** du. “Politika albisteak” izenburuak albisteei egiten die erreferentzia. Albisteak gazteleraz daude idatzita. Amaierako notizia da garrantzitsuena, non Joseba atxilotzen duten, emazte eta umearekin. **Batasuna ilegalizatu zuten garaian** koka genezake, alegia, 2003an. Errealitate zantzu batzuk (Gara ezkutatzea, Herri Batasunaren notizia). **Sugea eta aizkora ageri dira erloju** batean eta erlojuak berak bere sinbologia badauka.

Arroza erreta bukatzen da istorioa. Gutun bat dago, hori **metaliteratura** da. **Gutun** horretan **ama izan nahi** duela esaten du. **Amatasun ukatu** bat aipatzen da. Seme horrei **Amets** jarri nahiko lioke. Honek **esanahi bat** dauka. **Gizona izatea nahi du borrokan jarraitu** ahal izateko nahi du semea.

Adaska gaztea testuartekotasuna da.

Kasualitatea da arroza erretzea? **Arroza pasatzea esaten da** umea edukitzeko garaia pasa zaionean bati, istoria horrekin amaitzen da. **Idoiari ama izateko garaia** pasa zaiola esan nahi digu agian. Idoia ez da bere garaira egokitu, ez ditu seinaleak interpretatzen. **Gudariaren maitalea dela** pentsatzen du oraindik. Berak gerra horretan parte hartu nahi du edo bertan sentitzen da → **paranoia persecutoria**

ETAren sinboloa, lema: bietan jarrai. Sugearen astikeria eta aizkoraren zorrotasuna.

Etaren bidea amaituta dago edo **bide horrek ezgaramatza inora** bezala interpreta daiteke **erloju eta sinbolo hori**. Bukaeran txilborrean azka egiten **zauria** egiten du, hor ikusten da **laguntza behar** duela. **Idoia ez da fidagarria**, kontatzen duena ez da den dena horrela, **amataz esaten** dituen gauzak ez direla horrela guztiz. Amak alabaren bitartez **gatazkaren ondorio guztiak** etxean biziko ditu.

“Gutun bi posteritateari”(2010). Ur Apalategi. Ur Apalategi. Bereziki narratiban gailendu izan da.

Ezuste horren arabera garatzen da ipuina. Umorea ere badago. Gatazkarekin umorea egitea ez zen ohikoena. Errealismoa ez da espreski jorratzen den baliabidea.

Izenaren balio sinbolikoa (Manu Eztandona). Eztandarena aurreratu egiten da nolabait izenean. Gaia: benetako idazle bat izatea. Euskal literaturan arrakasta izatea nahi du. Narzisista bat da. Egoa ageri da. Erakutsi nahi du bere idazlearen banitateak ez duela mugarik. Patetikotasunera lerratzen da protagonista. Inoiz ez du onartuko bere obrak eragin zuen harrera. Horregatik erabakiko du eztanda bat sortzea bere lehengusua traizionatuz. Bera minduta dago.

Izenburuak bi gutunena aurreratzen digu, etorkizunera begira. Etorkizuna izango da baldintzatuko dena ipuin honetan. Hasieran, Literatura eta Historia aipatzen zaizkigu elementu kontrajarri bezala. Manuren obraren arazoa izan da bere literatura ez dela bat etorri uneko historiarekin (anakronia). Azkenean, bi elementu horiek bat egingo dute bi gutun horiek elkartzen direnean. Beraz, bere obra sinkronikoa izango da. Hori lortzeko, berdin zaio gatazka. Epigrafean nitasuna da nagusitzen dena. Apokalipsiaren aipu bat da. Simil bat egiten da Manuk egingo duenarekin. Berak eraldatuko du etorriko den guztia.

Planoka antolatuta dago eta planoak txandakatu egiten dira. Batetik, Manu + bere obra + euskal literaturaren historia ditugu. Bestetik, ekintza hori bideratzen duena. Egun bat irauten du istorioak. Goizeko bostetan hasten da kontakizuna, gutunari buruzko kontuekin.

- Literaturari buruz ari da, hori da gaia, metaliteratura. Gogoeta bat, historikoa. Euskal literaturaren joera nagusienak aipatzen dira, baina ikuspegi murriztu batetik erakusten digu hori. Bere interpretazioak oso karratuak dira. Bere bizitzaren istorioa ere erakusten digu, Maitane, etab.

Modaren arabera idatzi nahi du, benetan ez du ideia propiorik. Historia hainbeste aldatzen da euskal literaturan. Egiten den ibilbide hori oso subjektiboa da. Deslilura: Ur Apalategiren testuan, nazioaren deslilura gertatu zela aipatzen da. Bide hori zalantzan jartzen da. Urteak klabean agertzen dira. Urte bakarra ageri da, Maitenerekin eztabaida izan zueneko. Literatura gatazka eremu bezala ulertzen da. Ipuin honetan gatazkaren gaia jorratzen bada ere, atzean gelditzen dena benetan idazlearen irudi desitxuratu eta patetiko samar bat da.

“Fikzioa, fikzio hutsa eta fikzioa besterik ez”(2010). Harkaitz Cano

Harkaitz Cano. Atxagaren irudia garrantzitsua.

Hasiera eta amaiera. Testuartekotasuna: *Ehun metro*. Hasiera batean ez da Konstituzio plazara sartzen. Amaieran, kontziente da kontakizun bat kontaktzen ari dela. Ipuina *Ehun metro* explizituki aipatuz amaitzen da. Protagonista bera dela pentsa genezake.

Epaitegiko esaldiarekin du lotura izenburuak. Azpimarratzen digu ipuinekoa fikzio hutsa dela. Artificio literario bat dago, fikziozkoa. Denak balio du. Iheslaria irakurle klub batera sartzen da, pistola poltsikoan duela. Ondoren, putetxean sartzen da, non liburuak eta irakurleak dauden. Errealismo magikoa. Bertan, Liuba dago, irakurle klubeko liburuan agertzen den protagonistetako bat. Berari irakurle klubean jorratzen duten gauza bera gertatzen zaio.

Testuartekotasuna: izenburukoa. Leonid Andréyev *Ilunbeak*, errealitatea ere erabiltzen du beraz. Dorothy Parkerren ipuin bilduma bat, *Hona hemen gu biok*. Errusiako testuingurua

aletu dute: Gogol, *Arima hilak*, Tolstoi, *Gerra eta bakea*, Dostoievski, *Lur azpiko memoriak*, Txekhov...*Osaba Vania*, *Gereziendoen lorategia* (Txekhov).

Iheslaria pertsonaia biribila. Borroka, iraultza, maitasunari, sexuari kontrajartzen zaio. Protagonista helburu orokorrago baten alde bere bizitza pertsonala alboratu du. Liuba ezagutzen duenean horretaz konturatzen da. Bi maitasun kontrajartzen dira istorioan: herriarekiko eta pertsona betekiko maitasuna. Bi ipuin metaliterario dira. Ez dira sinesgarriak, modu errealista batean kokatuta dauden arren.

Iban Zaldua. Fantasiak balio digu errealitatea islatzeko. 7 ipuin hauetan gehienak fantasiosoak dira, baina zientzia fikzioa ere ageri da baten batean.

“Bibliografia”(2000)

Liburu baten ibilbidea esku ezberdinetatik pasatzen delarik. Ipuin ziklikoa? baina zirukularra da istorioa? horrela izateko hasierako puntura iritsi behar gara. Hasieran dakiguna baino askoz gehiago dakigu bukaeran gela horretan gaudela. Ipuinak espiral forma duela esan daiteke.

Izenburua: liburu zerrenda bat izan ohi da bibliografia eta hemen liburu bakarra dugu. Liburu horren irakurleen zerrenda dugu, liburu zerrenda orde. Irakurle zerrenda horren biografia zantzuak ematen zaizkigu, bibliografia hitzaren barnean biografia dago.

Liburuaren lehen irakurlea, ustezko terrorista da. Bigarrena, 76635-Q- polizia. Hurrengoa, kartzela funtzionarioa, aurrekoaren bikotekidea (ez da generoa esaten, beraz, irakurlearen esku dago). Hurrengo irakurlea preso da, lapurretan aritzen zena. Bere neskalagunak loredenda batean egiten du lan (lehen drogetan zebilen). Arantxaren liburutegian liburuak lapurtzen zituen neskalagunak (Sarak), atentatu batean hil egiten da hau. Ustezko terrorista hori atentatuan parte-hartzea leporatzen diote. Ipuina irakurri ondoren badakigu bera izan zela, taberna batean itxaroten zegoenean iraurri zuen ustezko terroristak liburua; itxaroten egon beharra izan zuen (atentatuaren zai?). Bueltatzen gara hasierako puntura, baina inplikazioa desberdina da, horregatik da espiral bat eta ez zirkulu bat. Irakurtzen duten liburua zein da? Zein da idazlea, ustezko terroristaren abizen berdina du. Egile enpiriko eta liburu enpiriko bat dago horren atzean.

Jokin Muñoz - *Bizia lo* (2003). filologoa eta euskal idazlea da. *Bizia lo*, 2004ko Euskadi Sariaren irabazlea, bere lanik ezagunenetarikoa da.

“Isiluneak”

Polifonia da narrazio honen emaitza. Plano bikoizketa bat dago. Bi horiekin fokalizazioa erlazionatuta dago. Irakurlearen parte hartze aktibo bat eskatzen dute, haria jarraitzea zaila baita. Irakurleari agobioa jeneratzen dio, amaiera ez dakigulako zein den, semea ez dakigu non dagoen, telefonoa joka denbora guztian, telebista jarrita (albisteak), egunkaria GARA?. Aurrekariak: semeak autobus bat erre zuen eta kartzelan sartu zioten. Orain astebukaera pasa joan dela esaten du, baina ez dakigu egia den.

Suspense bat dago denbora guztian, isiluneek intriga sortzen dute. Bukaeran ez da argi eta garbi esaten zer gertatzen den azkenean, baina aditzera ematen da eta suposatu daiteke. Ipuinaren argumentua: **gurasoek bizi duten ezinegona. Komunikazio falta** bikotearen artean, nahiz eta oso hurbil dauden elkarrengandik. **Izenburua:** isiluneak, horrek adierazten du **gurasoen arteko isilunea, telefonoaren beste aldeko isilunea, telebistaren isilunea (mututa dago)...**

“Ez dute entzungo. Ez dute entzun nahi”, amaierako esaldiak Eider Rodriguezen “politika albisteak” istorioko amaierarekin lotura dauka, antzeko amaiera dauka. “Lehen Ahotsa”-ren amaieraren antzekoa

Narratzailea kanpo diegetikoa dugu, 3.pertsonan hitz egiten digu. Ez da orojakilea, mugatua da. Bakarrik dakizki senarra (Joseba) eta emaztearen (Julia) barnemunduko kontuak, ez daki telefonoaren beste aldean zein dagoen, ez daki semeari zer gertatzen zaion. Egitura aldetik ez dago bereizketari. Bi fokalizazio nagusi, senarrarena eta emaztearena. Ez du abisatzen noiz egiten duen salto, ez dakigu argi noiz dabilen senarraren buruan eta noiz emaztearenean. Gogoeta batzuk daude, non senarrak hasieran azalduko digu ikuspuntu batetik. Gertaera berdinarekiko bi ikuspuntu erakusten da, hori da **polifonia**. Beste ezaugarri narratologiko garrantzitsu bat dugu espazioa. Espazioa etxea dugu, gehiena logelan pasatzen da, bereziki ohean. **Ohea→ gatazka eremua da.** Gertatu den atentatua gurasoen oheraino sartzen da (telebista eta egunkariaren bitartez). **Etxea ez da beti babes eremua.** Etxeko egoera aztertu behar da jakiteko zer nolako espazioa den. Babes eremu hori denbora guztian erasotua da istorio honetan telefono deiengatik. Egunkarietan, bestalde, festak ageri dira denbora guztian; hau da, telebistako kontrako egoera telebistan gatazkako irudiak agertzen zaizkigu. Komunikabideak ditugu egunkari zein telebista, bikotearen artean falta den komunikazioa. **Eider Rodriguezen “Politika albisteak” ipuinarekin erlazionatu dezakegu, bertan ere gatazka komunikabideetatik** jasotzen baita. Gatazka nagusi den gizarte batean, komunikabideak errealitatea ulertzeko bitarteko dira.

Pertsonaiak: Julia eta Joseba (nagusiak dira), biek maila bera dute. Jon semea. Dani eta Ane, gurasoen aspaldiko lagunak, pertsonaia antagonikoak dira. Beti egiten du bitasun joko bat egile honek, bere ezaugarrietako bat da. Azkenik, telefono deiak egiten dituztenak daude, horiek poliziak izan daitezke. Telefonoa da kanpoarekin komunikatzeko aukera, mugikorrik gabeko garaian gaude. Bolueta auto leherketa bat izan zen, **errealitatea** da hori, horrekin erlazionatuta dago istorio hau. Kotxeko laurak ETAko kideak bonba bat jartzera zijoazten eta kotxeak eztanda egiten du. 2002. urte inguruan gertatutako istorioa da. Errealitateko gertakizun bat hartzen dugu ipuin bat sortzeko, horrek ez du esan nahi Boluetako istorioa kontaktzen duela zehazki, baina horretan inspiratzen da. Lau hoiei gertatu zaien “honda espansioa” noraino heltzen den da garrantzitsuena, zehazki gurasoen oheraino iristen da. Nahiz eta gero Jon agertu gurasoei ez lieke gau hori kenduko (hala ere hil egiten da kasu honetan). 2003.urtean argitaratutako liburua da *Bizia lo*.

Ipuinaren amaierak ez du esperantzarako leihorik irikitzen. Ez dute nahi entzun albistea, baina badakite zer gertatu den. **Jasangaitza zen mina, horregatik ez dute nahi entzun, errealtatea onartzea zaila delako.** Erantzukizun pertsonal bat eskatzen zaio irakurleari, **zuk erabaki behar duzu nola bukatzen den,** nahiz eta gertatutakoa jada gertatu den. Aditzera ematen da aurrekariengatik, amaren pentsamenduetatik, etab.

Arantxa Urretabizkaia - Koaderno gorria (1998)

Ama militantea. Senarrak haurrak bahitu eta Caracasera eramaten ditu. Amak erabakitzen du koaderno batean eguneroko bat idaztea haurrei zuzendua. **Testu barneko irakurlea** edo narratariorak bere **seme alabak** dira, hau da, eguneroko narratzailea Ama da eta **narratariorak seme alabak** dira **(Miren eta Beñat)** Ama mailuskulaz idatzi behar da horrela ageri delako testuan, eta horrek balio bat ematen dio. Eguneroko hau ez da ezagutzen dugun eguneroko bat. Bere istorioa kontatzen digu koadernoan, **autobiografia** bat egiten ari da. **Modus autobiografikoa** erabiltzen da. Besteei bere bizitza kontatzen dien bezala, bere buruari ere kontatzen dio nor den. **Amak bere nortasuna eta izaera berreraikitzen ditu egunerokoaren bitartez, bere buruari bestela aitortuko ez lizkiokeen gauzak aitortzen dizkio narrazioaren bitartez.**

Bi plano daude. **Lehenengoa L. abokatuarena** da eta bestea **metaliterarioa** da Amak idazten duen egunerokoa. **Diegesia da istorioa.** Bigarren plano hori beraz, **barnediegetikoa** da. Plano nagusia, **ekintzen plano**a, L. abokatuarena izango da. **Bera Caracasera joango da Amak aginduta koaderno**a seme alabei ematera. Eleberriaren marko tenporala L. Caracasen dagoeneko izango da, hori da **orainaldia eta istorioa hor kokatzen** da. L-k errefuxiatu batzurekin harremana izaten du.

Momentu batean Amak baimena emango dio **L-ri koaderno**a itzultzeko gaztelerara. Bertan azaltzen zaigu **Koaderno Beltza.** Horrela, **narratariora bikoitza du koaderno**ak. Lehen mailakoa, **Miren eta Beñat,** baina tartekatzen da L berak koaderno gorria itzultzeko irakurri egin beharra duelako **(irakurlearen alter egoa bihurtuko da L, berak irakurtzen duelako dakigu guk zer jartzen duen koadernoan).** Gainera, koadernoak amaren modus **autobiografikoa** zehazten duen bezala, **L-ri iruditzen zaio irudi hori berak ezagutzen zuen irudiaren bestelakoa** dela. **Damua ikusiko du Amaren hitzetan, pentsatzen du agian militatuko ez zuela haurrak ez galtzekotan.** Intriga: lortuko du L-k koaderno ematea? Beste intriga ea umeez euskaraz jakingo duten. Amak egin behar du burruka bere seme alaben aurrean irudi "ona" emateko.

Iparraldean exilioan edo ezkutatuta (klandestinitatean) dagoela suposatuta dezakegu ama. Ama ezingo da joan haurren bila **agian erakunde barruan** dagoelako eta ezkutatua egon behar duelako. Esaten du gainera **ezin duela edozer gauza idatzi, hor zentsura / autozentsura** bat badago. **Narratariora ez esplizitu** bat dugu, nolabait egunerokoa irakurriko duena (erakundeko nagusiren batek irakur dezakeela pentsa dezakegu eta horregatik ezingo du edozer gauza idatzi). Militante bat izango da (ETAkoa seguraski), kargu bat edukiko du eta horregatik ezingo du idatzi non dagoen eta hori dena.

Seme-alabekiko biografia hori irudikatzen hasten da. **Biolentzia bikario** bat dago, **aitak seme-alabak kendu** dizkie, **bizitza erosoago** bat izan dezaten, baina aldi berean **Amari mina** egiteko. Esperantza du amak. Eguneroko bat bezala abiatzen da, eguna, data zehatza aipatzen baitu.

Askoz gehiago izango da **Mirenekiko** sentituko duen inplikazioa, gehiago ezagutzen duelako **zaharragoa da**, **Beñat gutxiago** ezagutu zuen. **Aitaren amaren bitartez jakiten du non dauden**. Beraz, **bi laguntzaile** edukiko ditu. Lehen a abokatua eta bigarrena amona (aitaren ama). **Amona hori ama** da ere, beraz, bere saminarekin **enpatizatuko** du. Amonak amari pista bat ematen dio, nahiz eta bere semeak eraman dituen haurrak. **Genealogia feminista bat dago (amona-ama-Miren), emakumeen arteko elkartasun** bat. Ama **zoriontsuen** izango den unea, 90ko hamarkadan, **anmistiaren aldeko manifestazio batera joaten direnean**. Une horretan lortuko du **militantzia eta amatasuna uztartzea** (hor bakarrik).

Idazketak, terapia modura funtzionatzen du. **Memoria ariketa** bat ere bada. **Espazioa oso esanguratsua da, ezin da mugitu**. Gertaerak iraganeko zama dira beraz. **Ezinda jakin ezta non dagoen**. Ezin die esan seme-alabei beregana joateko, **amaieran ere zoriontasuna bilatzeko urte batzuk pasa beharko lirateke**.

Metaliteratura honetan azken paretarekin puskatzen da, **koaderno irakurri egiten du irakurleak osorik**. **L-k erabakiko du ama ez dela izango, koaderno gorria irakurtzen ari den bitartean**. **Amatasunaren bi ikuspuntu** erakusten zaizkigu. Narrazio semipribatuak.

Gaia: **Amari amatasuna eta militantzia uztartzea ukatu** zaio. Gatazkaren ondorioetako bat (ez zuzena), amatasuna ukatzea izan da. Ama militantea da, baina ez zaigu esango zertan dabilen zehazki.

Fikzio errealista nagusitu 90. hamarkadan. Diskurtso jakin batzuk lantzeko alegoriara eta fantasiara ere jo izan da. Ez da bakarrik errealismoa egon. Metaforarako joera dago. Bestelako mekanismo batzuk erabili izan dituzte.

Koaderno gorria pptk egelan

Euskal emakume idazleak: Gerra Zibila eta Gatazka ppt

2000tik aurrera idatzitako gatazkaren inguruko eleberrari zein bost ezaugarri egotzen dizkio Iban Zalduak? (84.orria). **Azterketarako galdera izan daiteke.**

1. Gatazkari buruzko ia ezer ez egotetik, oparotasunera. Balizko urritasun batetik, balizko ugaritasunera igarotzen da.
2. ETaren gaineko apologia egitetik, edo bestela esanda, biktima gisa aurkezten zirenak ETako biktima militanteak soilik izatetik, postura geroz eta irekiagoak proposatzen dira, terrorismorantz joz.

- “Isiluneak”, “Azterketa”, “Xantilli” Jokin Muñoz (2003) bizia lo, “Politika albisteak” Eider Rodriguez (2004) eta handik gutxira gaur, “Lekukotasuna”, “Pareko tabernan” Iban Zaldua (2018) sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak (biktimaren semantika hedatu daitekeela aditzera ematen da).
3. Lehen lerroan gatazka bera kontatzen, gatazka horren barruan trama ezberdinak kontatzera igarotzen da (azpitrama).
 - “Fikzioa, fikzio hutsa eta fikzioa besterik ez” H.Cano (2010), “Gutun bi posteritateari” Ur (2010) (umorea eta metaliteratura), “Kontuak ez du erremediorik” Iban Zaldua (fantasia, ez da guztiz errealista), “Ibilbidea” Iban Zaldua (2018) (zientzia fikzioa).
 4. Istorio kolektibo bat azpimarratzen, indibidualismora joaten da gehiago.
 - “Politika albisteak” (Idoia ikusten dugu hemen), “Nire buruarekin eztabaidatzen” (subjektibitate ugari), “Murgiltzea”, “Ibilbidea” Iban Zaldua (gatazkarekin batera bestelako elementu batzuk ere azaltzen zaizkigu).
 5. Euskal gatazkak istorioaren nolabaiteko testuinguratzeko bat emateko balio du, iada ez da lehen bezala istorioaren foku nagusia.
 - “Gutun bi posteritateari” (idazle horren gatazka da garrantzitsua).

Egelako Ibon Egañaren bi artikulak eta Iban Zalduaren beste biak zer?

4. GAIA: Generoa eta sexualitatea berridatiz

Lourdes Oñederra

Eta emakumeari sugeak esan zion (1999)

Narratzaileak, **2. pertsonan** narratzen du. Narratzaile batek **narratorioa** behar du. **Bere buruari hizketan ari da?** Teresa Teresari buruz hitz egiten. **EZ!** Oraindik gertatu ez diren gauzadakizki, beraz, ezin da Teresa bere buruarekin hitz egiten egon. Kanpo narratzaile bat dago, **bigarren** pertsonan hitz egiten dio Teresari eta protagonistak baino gehiago daki. **Fokalizatua** Teresa da. Kanpotik ari da eta horrek baliabide batzuk ematen dizkio. [Badakigu narratzailea ez dela Teresaren ezaguna bere etorkizuna badakielako, horregatik izango da kanpo narratzailea, ez delako istorio barnean dagoen pertsonaia bat]. Eleberri guztia da **2. pertsonan**, batzuetan **1. pertsonara** gerturatzen digula ematen du, batzuetan iruditzen zaigu bere barne mundua irudikatzen zaigula. Beste batzuetan berriz, **3. pertsonara hurbiltzen** digula ematen du. Batzuetan, **zuzena** izaten da, eta beste batzuetan **distatzia** gehiago dago, **prolespsiaren** bidez adibidez. **Batzuetan bardediegetikoa** dela dirudi, baina **kanpokoan** kokatzen da. Narratzaile **orjakilea**, Teresaren istorioa nola bukatzen den badaki. **Teresaz banantzen denean narratzailea ez da orjakilea.** **3. pertsonan** egongo balitz: narratzailea orjakile mugatua izango litzateke, bakarrik Teresaz dakielako (fokua ere Teresarengan egongo da).

Orojakilea zergatik ez da? **3. pertsonan** baldin badago bakarrik izan daiteke. (1.p barruan egon ohi da, 2.p zalantza, 3.p kanpo normalean, baina narratzailea **3. pertsonan** baldin badago

eta kontatzen duena istorioko pertsonaia bat bada barne izan daiteke). 1. pertsonan pentsatzen dugunean ez dakigu dena, beraz, ezingo gara orojakileak izan. 3. pertsonan jakin dezakegu dena eta orojakile izan edo orojakile mugatua (zer da orojakile iruzkingilea?). Lezioak ere ematen ditu.

Izango da. Izango bada. Esaldi laburrak dira, zuzenak. Denbora guztian zehaztasun obsesibo batera jotzen du, horrelako esaldiekin. Bizitzari buruz asko hausnartzen du. Obsesio bat gertatzen ari zaionarekiko, hizkuntzarekiko. **Hizkuntzarekiko obsesio hori dauka baita ere kazetaria delako, hizkuntzarekin egiten du lan.** Liburuaren idazlea (Lourdes Oñederra) ere **hizkuntzalaria** da. Modus autobiografikoa da gailentzen dena. **Gogoetarekin, metaliteratura** egiten du. Lehenengo ataletik maitasunaren amaierari buruz ari zaigu hitz egiten da. **Eleberri bat idazteko gogoa** dauka.

Wittgenstein. Norberaren mugak, norberaren hizkuntza mugak... esaten zuen. Hizkuntzalaria zen. Hizkuntza aztertu eta hizkuntzaren gainean hausnartu. **Testuartekotasuna** da hori. Beste testuartekotasun bat dugu biblian ageri diren pertsonaiena, **Adan eta Eva.** Bekatuaren zama ezarri zaiola pentsa daiteke, hor dago erlazioa. **Izenburuan testuartekotasun aipu bat dago (Evarena).** **Paratestua** ere bai. Teresa emakumea da, eta adin jakin batean bakarriketa batzuk izan behar dituzu beste inorekin baino gehiago, **erabakiak hartu behar ditu. Emakumea izatearen zama, ardura, kezka,** etab.

Teresa deitzen da protagonista. **Triste dago Teresa, eleberriaren tonuan nekea zein asperdura** ikusten da. **W** hirira bikoitzera doaz hegazkinez, **Andres eta Teresa** doaz (senar-emazteak). **W-n (Viena) Luis** bizi da eta bere etxera joaten da bikotea. Luisek esaten diolako bikotearekin utzi duela eta tokia duela. **Gaztetan ezagutu zuen Luis, ez zen ezer gertatu, baina gertatu zitekeen.**

Andresen lan bat hartuko du W-n eta Teresa berekin joango da. Idazlea da, **egunkari batean egiten du lan** Teresak eta **baimena hartu du urtebeterako** kanpora joateko. **Teresa bakarrik bueltatzen da trenaz,** separatu egingo direla ematen du aditzera. **Nobelaren amaiera hasieran aipatzen** da, hau da, Teresak senarra utziko duela, **W-ra iritsi eta handik urtebetera nekatuago eta egoera okerragoa** izango dela esaten da. **Prolepsia** gertatzen da, denboran aurrera egiten du, istorioaren amaiera zein izango den aipatuz. Luisengatik ez dela izango ere aipatzen zaigu, **W-tik alde egiten baitu.**

Gaztetako lagun batez hitz egiten digu, bere harremanaz hausnartzen du, lanean daude biak; beraz, guztiz gaztea ez da, ezta zaharra ere. 40 urte baino zertxobait gutxiago edukiko ditu, erabakia bestela lehenago hartuko zuelako. **Teresa dago bizitzako aro batean, non 30tik gora dauzka, baina 40 baino gutxiago. Ama izan nahi duen edo ez erabaki beharko du eleberrian** eta horrek adinaren inguruko pista bat ematen digu baita ere. Hilerokoarekin ere arazoak ditu.

Eleberria intimista da. **Barrura begira egindako liburu** bat da, sentimentalista da. Ekintzak kontatzea baina gehiago **senimentuak adierazi** eta sorrarazten dizkio. Zoriontsu izateko behar izanak (senarra, kazetari lana, etab.) baditu, baina ez doakio ondo.

Uxue Apaolaza

“Bueltak”

Emakume bat komunetik ateratzen da **taberna luze batean**. Barran taburete batean eserita dagoen **gizon batengana** joateko egiten duen bidea deskribatzen du, emakumeak espero du bide horretan zehar **gizonari loditu beharrekoa loditzea**. Ibilbide horretan **ustez gorputz atalak galtzen** ditu eta **analepsien bidez galtzen dituen gauzen gaineko gogoetak** egiten ditu.

Fantasia den neurritik ez da gertagarria. **Irudikatu** egiten da **gorputz atalen erorketa** hori, **baina ez da erreala**. Berdin du benetan gertatu den edo **bere buruan gertatu da**, garrantzitsua da bai gertatu dela.

Gorputz atal bakoitzari iruzkin bat egiten dio. Iruzkin hori **gizarteak atal horrekiko duen pertzepzioaren** araberakoa da. **Berak badu etika eta moral jakin bat**. **Feminidade eta maskunilitate** hori nahasten ditu, baina hori jokaerekin lotuta egon daiteke. Ez da transa, hori ez jarri.

7. orrialdeko uzkia horrek → “ondo neurtu behar da uzkia” . Uzki horrek dosia esan nahi du, itzulpen arazoa dago hor (ano hitzak dosia ere esan nahi du).

Protagonistak badaki besteengatik desberdintzen dela. Momentu batean sintoma bat aipatzen du, **sintoma ezberdintzailea**, sintoma horiek **parreak** ziren. Eskolan zegoenean barreak eta kutxumutxuak sentitzen zituen, horregatik zen bestea bera. **Bestetasun** hori aurreratu egiten da. Marginatua, besteak (estandar eredugarrietan sartzen ez direnak) izango dira bere lagunak eta gainera, haien diskurtsoa ere analizatzen du.

Psikiatrak erakutsi zion zerbait aipatzen du. **Irakasmen batzuk ikasi ditu**, ez du enkajatu **gizarteko expektatibekin**. Saiatzen da **gorputzaren irakurketaren teoria** egiten. **Gizarteak definitzen ditu gorputzak**, **gizarte hori gu gara**.

Espazioari dagokionez, **taberna** batean kokatzen da. **Komunetik hasi eta barran amaitu**, horri **pasarela** deitzen dio (pasilloari horrela deitzen dio), **desfilatzen** ari da (modeloek egiten dutena) **jendearen begirada** senti dezake. **Komunetik abiatzen da**. **Etxeko komunarekin konparatzen duenean etxekoan negar egiten du**. **Komunera joatean generoa aukeratzen da, genero aukeraketa indartzen da**.

Ez da **gizon-gizona ezta emakume-emakumea** da. Ez da emakume horien bezala ikusten, ez du berdin jokatzen. **Mirandaren mutil laguna gizon-gizona dela esaten da**, hor ikusten da **feminitatearen eta maskulinitatearen arteko aldea**. **Besoa erortzen zaionean hasten da gogoeta egiten**. **Jakin uneoro dagokion lekuan dagokion bezala jokatzen**, **emakumeak nola jokatu behar**

duten jakin behar du. Femeninoaren irudikapen negatibo zein positiboak ageri dira. Graduazio bat dago, banaka-banaka erortzen zaizkio atalak. **Alua desagertu zait esaten du hasieran. Alua desagertu naiz ondoren. Azkenik, ikusezina naiz.**

Bukaeraren interpretazioa: ile bat ateratzen du ezta gizonak, jarraian esaten du bere ilea dela bustia, harremanak izan ditu? hori ez da esplizituki esaten, baina ipuinaren hasieran esaten da egun horretan edukiko dituela harremanak.

Bueltak da izenburua eta horrekin amaitzen da ipuina. Buelta bat egoteko transakzio bat egon behar da. Badirudi sexu transakzio bat dagoela, bere hitzetan ez baita maitasuna ikusten, batzuetan "gaizki" hitz egiten du gizonaz; beraz, pentsa daiteke sexu harremanak soilik dituztela. Testuan ukitu dira orduan? Bestala nola dauka ile bat gizonak ahoan? Kontakturen bat izan dute orduan. **Taburetearen azpian justu alua erortzen zaio, horrekin esan nahi duena da gizon horri bakarrik bere aluak axola diola, hura mihazkatzea, horregatik ilearena ere. Elipsia.**

Bi diskurtsoak desmonatzen ditu: diskurtso hegemonikoa eta artifizio horretatik kanpo daudenek sinesten dituztenak aurrera egiteko. Bera bien artean kokaten da.

Metaliteratura, irakurlearekin hitz egiten du momentu batean.

1.p eta 3.p nahasten dira?

"Igandea"

Beste belaunaldi bat ikus dezakegu, adineko jendearen artean gabiltza. Hasieran igande arrunt bat kontatzen hasten da. Amaieran ikusten da gizonak jo egiten diola eta hori ohikotzat hartzen dute bere lagunek. Lehen garai batean herri batean jakiten zen nor jipoitzen zuten.

Tematika: genero biolentzia (aditzera ematen duena patriarkatuan egonkortua dagoela), gorputzak, ama baten motxilak .Ez da oso itxaropentsua Uxuek erakusten duena.

"Karrotxo"

Amak familia eta etxe guztiaren zama dauka. Aitak oparitutako ahatetxoaren zama sentitzen du eta mina. Ipuin honek jarraipena dauka, ipuina amaitzen da erosketarekin, baina bere istorioa ez da amaitu.Kokoteraino dagoen ama baten irudia erakusten digu.

"Mahuka luzeak"

Uda izan arren, anaiak mahuka luzeko kamiseta bat du jantzia. Arreba bueltan doan etxera eta amari deitzen dio anaiak berdin jarraitzen duela jakinarazteko. Heroiak markak uzten ditu gorputzean, beraz, hortaz ari da hitz egiten. Gorputza tapatu nahi du.

Ipuin hau "imajina ezazue" batekin hasten da, irakurleari zuzentzen da eta metafikzioa dela aditzera ematen da. Irakurtzerakoan espero duzuna imajinatzea da. Badago narratzaile bat, metafikzionala (batzuetan gogoetak egiten ditu). 3. mailako narratzaile kanpodiegetiko bat da narratzailea ez dago istorio barruan. Narratzaile horrek momentu batean anaia fokalizatzen eta

beste batean, ama eta arreba. Arrebaren barne mundura sartzen da. Orojakilea da narratzailea; narratzaileak dio "istorioa oso ezaguna da, hasi besterik..." **prolepsia** eta **metafikzioa** agertzen zaigu bukaeran. Narratzaile jolasten ari da, "**baina hori ez du berak pentsatu**" → horrekin esaten du **anaiak ez duela hori pentsatu**, narratzaileak ala arrebak baizik.

Gurutzea (sinbolo garrantzitsua). Arreba ta familiaz dakiguna da, Gasteizkoak direla, **arreba katekista** bat bezala **janzen dela eta gurutze bat daukala amonak emandakoa**.

Hortzak falta zaizkio, heroinaren ondorioetako bat. Zainak ere garrantzitsuak dira. **Droga menpekotasuna eta heroina ez ditu zuzenki aipatzen, baina irakurleak ondoriozta dezake heroina dela hor aipatu nahi dena. **Bi amaiera izan ditzake; zulora joan edo hortik irtenda ere, sekuelak.****

"Belauniko"

Izenburua (paratestua). "Belauniko". Ipuin laburra, bi paragrafo dituena. Izenburua amaierarekin lotuta dago. Ipuinarekin lotura zuzena du. **Amaieran protagonistak belauniko** bukatzen du. Baina bestelako adiera bat ere izan dezake. Ipuinean **bi plano** daude; **etxeko plano eta kaleko planta**. Bi atal daude. **Ipuin zirkularra dela esan genezake (izenburua/amaiera).**

Narratzailea. Bigarren mailako narratzailea da. **Bigarren pertsona singularra**. Baina **kontzientziaren ahotsa dela esan daiteke, bere buruaren ahotsa**. Kasu honetan **narratzailea barruan** dago, baina arrotasun sentimendu batekin. Barnediegetikoa eta kanpodiegetikoa? Irakurlea ere zuzenean interpelatzen du. **Ahots desberdinak** sartzen ditu (polifonia: askotariko ahotsak), **kanpo oihartzunak, kalean entzundakoak**. "**Gizartearen ahotsak**", **gizartearen entzundakoak pisu egiten diotenak protagonistari**. **Itxura fisikoak kezkatzen dio**. **Edertasun kanonari jarraitzen dion edertasuna**.

Batetik, **espazioa** daukagu. **Lehenengo atalean etxean** gaude. **Ere mu intimoa**. Ispilua aipatzen da. Ispilua **gizartearen ispilua** ere bada. **Besteentzako ari da prestatzen**. **Bigarren pasartean, transakzio sexuala, sustatzen transakzioa?**

Eider Rodriguez

"Salgai"

Miren Goenagak **ekoiztetxe** batean egiten du lan, baina nagusiak esaten dio **hiru hilabeterako bakantza** **behartu** batzuk ematen dizkiote. **Udan** kokatzen da, lantokian lankideak kafe makinaren ondoan daude oporren inguruan hizketan. **Lantokiko komunean botaka** egiten du. [Aitak lana topatu zion eta horrek ez du esan nahi lan gehiegi egin duenik].

Lankideen afarira ez joatea erabakiko du eta **erosketak egitea** erabakiko du. **Ulian** dago bere **etxea** eta **oinez** egingo du etxearako bidea **boulebardetik erosketak** egiten dituen bitartean. **Kotxe** bat aurkitzen du, **aitaren laguna**. **Elkarrizketa** bat izaten dute. **Inoiz ez dio lana eskaini gizonak, baina eskatzea ere prekariora da**. **Erosketak egin ondoren, bi pintxo jaten ditu**. **Komunean botaka**. **Anorexikien** inguruan hitz egiten du, **berak nahi duena jaten du eta botaka eragiten du; beraz, bulimia zantzu bat** izan daiteke. **Anorexia dutenei esaten die hobe dela jan**

eta gero botatzea. Bidean bizilagun bat topatzen du kotxean, etxera igotzen diona. Roberto aurkituko du etxera iristean, bere mutila. Etxea salgai dago.

Gerrikoa estutzearena ez da bakarrik bulimia kontu bat. Emakume horren itsurakeri eta hipokresia geratzen da agerian. Aitaren kontura bizi da oraindik ere. Emanda etorri zaion klasekoa izan da beti, goi klasekoa. Aita ere aitona bizi da, baina orain dena bera datorkie.

Etxea saldu nahi dute, horregatik, konponketak egiten ari dira bertan. Bere etxea ez da ikaragarrikoa, erortzen ari da, konponketak daude. Kontsumismoak arazoetatik ebaditzen laguntzen dio. **argudiatu egiten du bulimia hori produzentea** izango balitz bezala.

Narratzaileak kariño askorik ez dio pertsonaiari, batzuetan pertsonaiarengandik gertu jartzen da egurra emateko. Berak jarraitzen du oraindik boterea izaten, Roberto bera baino okerrago dago (Mirenek ematen dizkio 50 euroak, paga).

Bidea hasten denetik amaitzen duen arte (miramonetik-Uliara) , ez da pertsona bera (oinutsik).

“Bata bestearen gordintasuna ezagututakoak dira, eta ordutik beharrezkoak diren gezurrak baino ez dizkiote esaten elkarri.” Harreman bat izan dute aurretik, bizilagunak eta Mirenek. Bikotekide idealaren ideala hausten da, Miren Robertoren goian dago, horrekin aditzera ematen da ez direla klase berdinekoa (Jendea ez da Robertoren izenarekin gogoratzen).

Testuartekotasuna dago atzean, etxerako bidea igerian egin zuen **“Igerilaria” John Cheeverren obrako** protagonistarengan inspiratzen da, horko protagonista ere etxera iristean ez da pertsona berdina izango. Bide horretan ahaztua zuena gogoratuko du, etxea salgai zuela. Igerilariaren irudia da Roberto, horregatik azaltzen da amaieran bainojantziarekin bakarrik. Robertok txisa egitearena era igerilariarenarekin lotuta dago.

“Hagina”

Ane Basabe protagonista eta Gorka bere mutil laguna afaltzen ari dira. Beraien artekoa hitz egiten ari direnean Aneri hagina apurtuko zaio. Horren ostean drama hasiko da. Zerbait puskatzen zaion lehenengo aldia. Gorkarekin hitz egingo du bakoitzak zer egin eta urrunketa gertatzen da haien artean.

Lotsatu egingo da haginarena dentistari erakustean. Funda bat jartzea dela interesgarriena. Jon Somoza (HHTik Batxilergora arte elkarrekin ibiltzen ziren) ezagutzen duen galdetzen dio dentistak. Hortz fundak egiten ditu horrek. Jon baztertu bat da, Anek barre egin zion. Behin gutun bat utzi zion Jonek Aneri. Aneren amak barre egin zuen horren harira. Jonek %30eko deskontua egiten dio Aneri. Deituko dio eskerrak emateko, eta kafe bat hartzera gonbidatuko du. Etxean bukatuko dute eta harremanak izango dituzte. **Ama birginaren katea lepoa jotzen agertuko da txortaldian.** Jonek azalduko dio bananduta dagoela eta haurrak dituela. Jon joaten

da baina berriro jotzen du timbrea eta hortzaren moldearekin agur esaten dio. Azkenean, Gorkaren kamiseta hartuta egingo du lo.

Funtsean klase gatazka ageri da. Diruak ematen dizun klase gatazka. Odolak ematen dizun klasea eta diruak ematen dizuna dago. Anek badaki edertasunaren garrantziaz. Exagerazio behar bat ageri da ipuin honetan. Hagin bat puskatzeagatik pentsatzen du Gorkarekin utzi behar duela eta haginik gabe Jon Zomozarekin liatuko da. Hagina fisikoa da, baina psikologikoa bihurtzen da. Perfekzioaren kontu hori badago. Edertasunaren paradigma. Aneren gainberak Jon Somozaren igoera errepresentatzen du.

“Ez duzu ezer arraroa antzematen?” azken ipuina

Gabonetan kokatzen gara. Ama eta alaba Donostian gelditzen dira erosketak egiteko. Alabak senarrari alkandora bat erosi nahi dio. Haien artean ez dago jariotasunik.

1. pertsona dago idatzita, alabak kontatzen du, alabaren barne mundua ezagutzen dugu eta haren bitartez familiako beste kideena.

Amak esaten du ez direla bere eskuak. Alabak anai bat dauka eta honen bikotekidea Eneritz da. Alaba bat daukate azken hauek, Kattalin. Eneritz eskola irakaslea da, berak eskatzen du bere alabari ez erosteko ezer handia. Kotxe kapota erosi nahi dio amamak bilobari. Konprak egiten dituzte.

Elipsi bat dago. Familian Eneritz kritikatzten dute.

Azkeneko eszenan alaba amarengana joango da eta orain esango du belarriak ez direla bereak. Umorea dago, baina errealista da. **Amari pixka bat burua joaten hasi** zaio. Fantasia puntu bat du, zure gorputza zurea ez dela esaten denean.

Virginia Woolf

Gela bat norberarena: (1929)

Gizonak agertu dira emakumetasunaz hitz egiten, orduan, gizonen esku dago emakumetasuna.

1. pertsona singularra darabil, beraz, subjektibotasuna ikus dezakegu. Bera subjektuen bila ari da, bera bezalako emakumeak aurkitu ditzake. Berak topatzen duena da gizonezkoen objektu bihurtu dela emakumea. Subjekturik ez du izan emakumetasunak. **Amorrua dario testuari.**

Berak aldarrikatzen duena: **norberaren independentziaren aldeko aldarria.** Emakumeek ez zeukaten **gela bat norberarena, hau da, intimitaterik idazteko, horregatik ezin izaten zuten idatzi.** Gela bat norberarena horrekin esan nahi du emakumeak behar duela espazio bat berarentzat bakarrik, adb umerik sartuko ez den toki bat. Bestalde, baliabide ekonomikoak behar dira horretarako, Virginiak bere izebaren herentzia dauka.

Egiaren bila joan, nork egin du → bi aldiz errepikatzen da. Amorrua etengabe errepikatzen da, amorrua sortzen diolako egoera horrek.